

hh
hik hasi

188



ESKOLAKO JANTOKIA • KOLDO SARATXAGA •

0-3 ZIKLOKO HEZITZAILEEN FORMAZIOA • GAZTELIZARAN PROIEKTUA

• GEOGEBRA • BAZTAN ABENTURA PARK • JAKOBA ERREKONDO

0-8

urte

8-12

urte



Zubiberako zubia

Begoña Torres
adiskidetasunari
buruzko ipuin bat



Hartz marmartia

Begoña Torres
haserretari buruzko ipuin bat



Handia naiz

Araceli Hagoiti + Iratxe Hagoiti
Igorrek etengabe erakutsi
nahi die gurusoei handia
egia dela, baina etxetik
jauki den nani berria haino
handiagoa



Doministripu jauna

Iratxe Hagoiti + Iratxe Hagoiti
Doministripu jaunak doministrika
egiten duen hainokitzean, letriku
bat gertatzen ari...



Printzesa Txizontzia

Iratxe Hagoiti + Iratxe Hagoiti
Karinena Potatona printzesa txizontzi
bat zen... Nola konpondu arazo hori?



Letra txarra daukat, eta zer?

Iratxe Hagoiti + Iratxe Hagoiti
Ipuin horietako pertsonaiak letra txarra dauka
eta letretan erroz, bere hizburuko arazoa
gaitzeko aorian egosi dela.



aurkibidea



10
gaia

ESKOLAKO JANTOKIA

Euskal ikasleen erdiek bazkaltzen dute egunero eskolako jantokietan. Adituek nahiz hezitzaileek jatordua heziketarako oso une garrantzitsua dela dioten arren, gatazka eta arazo ugariaren iturburu ere bada. Zenbait ikastetxe neurriak hartzen ari dira jantokia bera eta bazkaldu osteko denbora tartea hezigarriago egiteko.



18
elkarrizketa

KOLDO SARATXAGA

Partekatzeak lehiatzeak baino lehentasun handiagoa izango duen gizarte-eredua du helburu kooperatiban eta hezkuntzan Koldo Saratxagak (Sopuerta, 1947). Etika eta gardentasuna nortasun ezaugarri izango dituen eredu bat. Bere estiloaren ikurretako bat Irizar kooperatiba izan da, eta gaur egun Ner Group-en dihardu.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

ESKOLAKO JANTOKIA, heziketarako gune?

18 elkarrizketa

KOLDO SARATXAGA,

Ner Group-en sortzailea eta bultzatzailea

24 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

28 esperientziak

GAZTELIZARAN PROIEKTUA: enpresa erreal bat administrazioa eta kudeaketa ikasteko

32 ekarpenak

GEOGEBRA ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN PRESTAKUNTZA

36 galdeidazue

Zer baliabide ditu irakasleak beste kultura batzuetako familiengana gerturatzeko? SAMIRA GODDI

40 hik hasi-ren proposamena

BAZTAN ABENTURA PARK

42 Atzeko atetik

JAKOBA ERREKONDO

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitu, Arantazu Muñoa eta Iraide Baskaran. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karnele Perez Urza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2014-04-14). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eman diezaiogun hezkuntzari garrantzia



Harpide zaitez, eta indartu ezazu hezkuntza komunitatea

-50 euro urtean jarrita 10 hik hasi aldizkari, ale monografikoak eta Euskal Herriko baliabide pedagogikoen gida. Horrez gain, prezio bereziak Udako Topaketetan, jardunaldietan eta argitararaten ditugun gainontzeko materialetan.

-20 euro urtean ordainduta 4 Hazi Hezi aldizkari.

Bi aldizkariak hartuta, 65 euro urtean.



Hazi Hezi *haziera eta heziketa aldizkaria*

Urteko 4 aldizkarien harpidetzak **20 euro**

www.hikhasi.com

editoriala maiatza

Ez, ez gaude lasai Nafarroako albisteekin



Cintruenigoko Otero de Navascues ikastetxean haurrak Guardia Zibilaren armak eskutan zituztela ikustea kezkatzekoa izan da, eta baita Jose Iribas Nafarroako Hezkuntza Kontseilariak datorren ikasturtean curriculuma espainartzeko egin dituen aldaketen albistea ere

Hamar egunetan bi albiste larri eman ditu Nafarroako hezkuntzak. Lehena mila hitzek baino balio handiagoa duen argazkia izan zen: Cintruenigoko Otero de Navascues ikastetxe publikoko 800 haurrek, tartean, Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoek, pistolak, fusilak, gomazko pilotak, borrak... jostailuak bailiran ukitu eta erabili zituzten. Izan ere, Guardia Zibilak “Eskolako Elkarbizitza Plana” garatzera joan zen, Espainiak Nafarroan duen ordezkaria bertan zela.

Nafarroko Hezkuntza kontseilari Jose Iribasek zehaztu zuen “lasai” egoteko, armak ez zeudela kargaturik. Baina ez, ez da lasai egoteko modukoa. Ikastetxeak, bere aldetik,

ikasleek egun hori “maitasun handiz” gogoratuko dutela adierazi zuen. Ez, ez da lasai egotekoa.

Hori al da Nafarroako Gobernuaren “elkarbizitza plana”? Zein da guardia zibilek haurrak instruitzearen helburu didaktiko-pedagogikoa? Hori al da hezkuntzaren funtzioa, betebeharra, helburua?

Baina Iribas lasai dago.

Hezkuntza kontseilariak berak eman du kezka garrantzatsua jotzen dugun beste albistea hil hondarrean: Nafarroako Gobernuak bideratu duen Lehen Hezkuntzako curriculum berria LOMCEk eskatzen duena baino are espainiarragoa izango da. Ez Axular, ez Nafarroako foru eta konkistarik, ez Gaiarre, ez Sarasa-

te... horien lekuan, Al-Andalusko eta erresuma kristaueko gertaera historikoak ikasiko dituzte haur nafarrek; Errege-Erregina katolikoek historia; Juan Carlos I.a... Murillo, Velazquez, Goya... Iribasen hitzetan, “curriculum aberasgarriagoa” izango dute haur nafarrek. “Gustura gaude Espainiara lotzen gaituen historia irakastearekin”, adierazi du.

Apirilean iragarri ditu aldaketa horiek, eta irailean hasiko da ikasturte berria. Baina lasai agertu da Iribas, lana bai, baina ez duela kezkarik azaldu du.

Ez dugu uste hezkuntzak arduratzen gaituenok Nafarroatik datozen albisteekin lasai egoterik daukagunik.



Luis Mari Elizalde EHuko Donostiako Irakasle Eskolako irakasle zenari, eta, aldi berean, **hik hasi** aldizkarian bere sorreratik aholkulari gisa laguntzen izan dugunari, gure eskerrik handiena eman nahi diogu egindako lanarengatik. Elkarrekin jorratutako bideari jarraipena ematea izango da gure omenalditxo.

hizpide

Nafarroako Gobernuak are gehiago espainiaratu du LOMCEk proposatzen duen curriculumuma

Nafarroako Lehen Hezkuntzako curriculum berria, irailetik aurrera ezarriko dena, LOMCEk proposatzen duena baino are espainiaragoa izango da. Nafarroa ez baita izango 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurrei ezarriko zaien curriculumeko erreferentzia nagusia, Espainia baizik. Nafarroari loturiko kultur eta adierazpideak nahiz gertaera eta pertsonaia historikoen erreferentziak murriztu egin dira eta horien ordez Espainiakoei egingo zaie leku; halaxe aurreratu dute: “Al-Andalusko eta erresuma kristauetako gertaera historiko nagusiak [ikasiko dituzte]. Errege-Erregina katolikoen gertaera nabarmenenak. Karlos III. aren erreinuko ezaugarriak...”

Jose Iribas Nafarroako Hezkuntza kontseilaria gustura agertu zen behin behinean taxutu duten dekretua aurkeztean, “Gustura gaude Espainiara lotzen gaituen historia irakastearekin”, adierazi zuen. Oposizioak azalpenak eskatu dizkio, baina, alegazioak ezartzeko epea itxita dago dagoeneko.

Ikasgai nagusien curriculumuma Madrilen esku geratzen da LOMCE lege berriarekin. “Ez du zentzurik erkidego guztietan Espainiako historia bera ez irakasteak”, esan zuen Jose Ignacio Wert ministroak dekretua aurkeztean. Lege horrek Lehen



Hezkuntzako curriculumeko erreferente gertuko errealitatea izaten jarraitzea onartzen zuen, baina Nafarroako Gobernuak gertuko erreferente hori Espainia bilakatu du. Datorren ikasturtetik aurrera, Nafarroako Foruek, konkistak, Julian Gaiarre kantariak, Axular idazleak, Pablo Sarasate musikariak... ez dute lekurik izango Nafarroako ikastetxeetan. Horrez gain, Iribasek euskarari buruzko erreferentziak kendu egin ditu Euskara ez beste ikasgaietatik. LHko ikasleen erdiak baino gehiagok, beraz, ez du euskarari buruzko aipamenik entzungo.

Balio Zibiko eta Sozialak ikasgaiak kutsu erabat espainiarra izango du aurrerantzean, sinbolo “nazionalen esanahia ikasi beharko dute erlijioa ikasten ez duten Lehen Hezkuntzako haurrek, bandera, Espainiako armarrria, ereserkia... “Espainiako nazioaren eta espainiar guztien elementu komunak” direla ikasi beharko dute.

EAEko ikasleak ez dira batez bestekora iristen eguneroko arazoei aurre egiteko gaitasunei buruz PISAk egingiko txostenean

Egunerokotasunean dauzkaten arazoei aurre egiteko 15 urteko gaztetxoek zer nolako gaitasuna duten aztertu nahi izan du PISA txostenak. Bertan, Euskal Herriko datuen artean soilik Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako datuak lor daitezke, Iparraldeko ikasleen probak Frantziakoekin aztertzen ditu Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak, eta Nafarroakoak ere Espainiakoein batera aztertu dituzte, nafar Gobernuaren erabakiz ikasle gutxi egin baitute proba. Dauden emaitzak, EAEkoak, kaskarrak dira. 496 puntu eskuratu dituzte, batez bestekotik lau puntu behera (gailurrean Hego Korea dago, 553 punturekin).

Txostenaren arabera, gai dira gailu digital sinpleak erabiltzeko, baina arazoak dituzte gailu konplexuagoak maneiatzeko, mapa bati jarraitzeko arazoak dituzte, garraio publikoko txarteldegia erabiltzeko...

Alor teorikoan, hau da, irakurketa, zientziari eta matematikari dagozkie azterketetan batez besteko emaitza txukunak lortu zituzten Hego Euskal Herriko ikasleek, duela lau hilabete argitaratu zen Pisa txostenaren arabera.

izan da

Eusko Jaurlaritzaren ebaluazio diagnostikoak emaitza kaskarrenak euskara azterketetan utzi ditu: hamar urterekin hiru haurretatik bat ez da iristen gutxieneko mailara

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskoletan egindako ikerketa batek erakutsi du 10 urteko hiru haurretatik bat ez dela iristen gutxieneko euskara gaitasun mailara, eta 14 urterekin, berriz, %37 ez direla iristen maila horretara. Eusko Jaurlaritzaren aginduz ISEI Irakats-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak egindako ebaluazio diagnostikoaren emaitzak dira horiek, euskaraz gain, gaztelania, Matematika, Zeintzia eta Gaitasun Sozialetan egin dute azterketa.

Lehen Hezkuntzako laugarren mailako haurrei eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ikasle guztiei egin zieten azterketa 2013an, ordenagailu bidez, eta emaitza kaskarrenak euskarako azterketetan atera dituzte oro har, nahiz eta ereduaren arabera oso handia den aldea. Baina oraingoz Jaurlaritzak ez du ereduaren arabera daturik eman, apirilean kaleraturiko datuak ikerketa osoaren aurrerapen bat baitira.

Gaztelaniaz maila kaskarra dute berriz %6 dira 10 urtekoen artean eta 14 urtekoen artean %15. Beraz, ikerketak beste ondorio bat azaldu du: gaztelaniaz bermatuta dago ia ikasle guztiek lortzen dutela gutxieneko maila, euskaraz ez bezala. Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak beste datu bat na-

barmendu zuen: 2009ko datuekin konparatuta, eskola gehienek, hamarretetik sei, emaitzei eutsi dietela edo hobetu egin dituztela.

Azkerketa hori ordenagailu bidez egin da aurrekoak ez bezala —papelean egin ziren haiek— eta horrek zaildu egiten du urterik urteko emaitzen arteko konparazioa. Aurreko ikerketan, 2011koan, Dereduan maila apala erakutsi dutenak %25 dira, B ereduaren %42 eta A ereduaren %85. Oro har, A ereduak atera dituzte emaitza kaskarrenak gairik gai, ikastetxe publikoetan, kasurako, publikoko D ereduak nota hobea eskuratu du A eta B ereduak baino.

Euskararekin batera, zientzietako azterketan atera dituzte ikasleek emaitza kaskarrenak. 10 urteko haurren artean, lautik batek ez dauka gutxieneko mailarik zientzien arloan, eta 14 urtekoen artean bostetik batek atera du emaitza kaskarra.

Aurten ez dute egingo azterketarik. Datorren urtean egingo dute hurrengo ebaluazio diagnostikoa. Proba hori, beraz, 2011. urtean 10 urte zituztenek egingo dute berriro, 14 urterekin, eta era horretan ikasleek birtarte horretan izan duten eboluazioa ikertzea da helburu. Horrez gain, ingeleseko azterketa ere egingo dute.

Arartekoak adingabeen inguruan jaso dituen lau kexatik bat hezkuntzari buruzkoa izan da

Haur pobrezari buruz jaso ditu EAeko Arartekoaren Haur eta Nerabeen bulegoak kexa gehien 2013an 520 kexatik 236, eta ondoren, hezkuntzari buruzko kexak izan dira ugariak (136). Ondorioz, pobrezia egoeran bizi diren edo bizitzeko arriskuan dauden adingabeen kopurua urritzeko plan bat eskatu du EAeko ararteko Iñigo Lamarckak. Izan ere, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleen %3,5 pobrezia larrian daude, eta EAeko babes sistemak ez die konponbidea ematen kasu guztiei.

Hezkuntzari loturiko kexen artean, gehienak ikasleen onarpenarako prozesuari buruzkoak izan dira, eta horren kudeaketa “modu arduratsuan egin dezaten” eskatu die Lamarckak hezkuntza eragileei. Halaber, gogorazi du 2 urteko gelen eskaintza ez dela nahikoa eskariari aurre egiteko.

Horrez gain, eskola jantokirako diru-laguntzak kudeatzeko sistemak ere kexa iturri izan ziren 2013an. Garraioari buruz, aniztasunari erantzuteko planaz, eskola elkarbizitzaren gaineko gidaz, eskola kirolean genero bereizkeriaz... Haur eta Nerabeen Bulegoak hezkuntza alorreko hainbat eremutan jaso ditu kexak.

hizpide



Hik Hasiren Udako Topaketetan izena eman daiteke

Hamabosgarren urtez Udako Topaketa Pedagogikoak antolatu ditu Hik Hasik EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailarekin batera. Uztailaren 2an, 3an eta 4an izango dira topaketok eta 30 ikastaro izango dira aukeran.

Irakasle nahiz hezitzaileen interesa pizten duten gaien inguruko ikastaro multzo zabala antolatu du Hik Hasik. Horien artean dira Pikler-Loczy eskolako bortxakeriarik gabeko heziketaren ingurukoa, hezkuntza emozionalari buruzkoak, pedagogia sistemikoaren gainekoa nahiz eskola libre eta demokratikoei buruzkoa. Azken urteetan arrakasta handia izan duten hainbat formatzaile ere bertan izango dira. Besteak beste, Ramon Mauditek haurrentzako masajearen gaineko ikastaroa eskainiko du, Nerea Mendizabalek eguneroko gatazkak nola saihestu eta kudeatu azalduko du, Miren Camisonek pentsamendu autonomo eta sortzailearen inguruan hitz egingo du, Urko Arozena entrenamendu mentalaz eta ametsaz ariko da eta Mirari Perez ahotsaren erabilera egokiaz.

Aurten, gainera, lehen aldiz, Irrien Lagunak Klubaren Gizartegintzarekin elkarlanean, bost ikastaro eskainiko dira: Zeinu hizkuntza; kirol egokitua eta kirol irakaskuntza inklusiboa; harrerako haurren hezkuntzari begirada sakon eta sistemikoa; animaliek lagundutako esku-hartzeak; eta Irria aldizkaria gelan? Noski baietz!

Ikastaroak eskaintzeaz gain, hainbat arlotako irakasleak elkartzeko eta beren esperientziak trukatzeko topalekua izatea ere nahi da. Bertan, hausnarketa, asmo, ideia, proiektu eta berrikuntzak plazaratuko dira. Ikastaro guztiak goizez egingo dira, 9:00etatik 14:00etara. Arratsaldeetan, hala ere, tailerrak, aurkezpenak eta eztabaida saioak egingo dira 16:00etatik 18:30etara. Topaketak Donostiako Pedagogia Fakultatean eta Ekintza ikastolan izango dira.

Izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 31 arte. Kopuru mugatuko ikastaroak dira eta aurrena izena ematen dutenek izango dute lehentasuna. www.hikhasi.com/topaketak web helbidean egin daiteke matrikula.

Edozein argibidetarako deitu 943 371408 telefono zenbakira edota idatzi hikhasi@hikhasi.com posta helbidera.

Konfiantzaren Pedagogian dihardutenen I. Bilgunea Lekeition

Maiatzaren 9an eta 10ean azken urteetan Konfiantzaren Pedagogia praktikatzen ari direnen lehen bilgunea egingo da Lekeitioko Azkue Ikastolan. Konfiantzaren Pedagogia deitzen den planteamentua eta praktika hainbat ikastolak ireki berri duten bidea da. Konfiantza da gakoa, haurra bera bere buruarekin eta ingurukoekin seguru sentitzea eta segurtasun horrek ematen dion konfiantzaz bere buruaren ezagutza eta jakintza handitzea. Konfiantzaren Pedagogiaren aldeko apustua hiru ikastolak egin dute oraingoz: Bergarako Aranzadik, Leintz bailarako Arizmendik eta Lekeitioko Azkuek.

Bilgunearen baitan, maiatzaren 9an, goizeko 9:00etan hasita, Hubert Montagner haur pedagogian adituak erritmo biologikoez eta eskola-dentboraren antolaketaz hitz egingo du. Arratsaldean, Korsikako Monticello eskolako eta Aranzadi, Arizmendi eta Azkue ikastoletako esperientziak entzun ahalko dira Montagnerren nahiz Rafael Cristobalen eskutik. Maiatzaren 10ean berriz, goizez, pentsatzen ikasteaz eta adimen anitzaz ariko da Javier Bahón. Arratsaldean berriz, identitate euskaldunari eta Haur Hezkuntzari buruz solastuko dira Lorea Agirre eta Iñaki Eizmendi.

Informazio gehiagorako: lekeitio@ikastola.net, 946840959.

izango da

LOMCEri aurre egiteko estrategia eztabaidatuko da



Hezkuntzaren arloko hainbat elkartek eta sindikatuk osatutako plataformak LOMCE legearen aurka egiteko oinarritzko txostena landu du eta maiatzaren 10ean, larunbatez, aurkeztuko du jendaurrean Aguraingo Kultur Etxean, 9:30ean hasita, egingo den topaketan. Bilera irekia da eta hezkuntza alorreko eragileak ez ezik (ikastetxeetako ordezkariak, langileen ordezkariak, guraso elkarteak, etab.), interesa duen edonork har dezake parte.

Oinarritzko txostena osatu duen plataforma hainbat eragilek osatzen dute: ELA, LAB, EILAS, Ikastolen Elkartea, Sortzen, Ikasle Abertzaleak, UEU eta Hik Hasi. Joan den ekainean jarri ziren martxan, eta orain, Wert erreformari aurre egiteko behin behineko txostena adostuta, hezkuntza komunitatea osatzen duten kideekin partekatu nahi dute. Helburua da haien ekarpen eta proposamenak jaso ostean, LOMCEri aurre egiteko eta Euskal Herrirako hezkuntza eraikitzeke behin betiko gida adostea.

Lau ildo pedagogiko nagusi zehaztu dituzte txostenean: bat, eskubide murritzketen aurrean hezkuntza eskubidea bermatzea erantzunkidetasunetik; bi, eskola inklusiboa (ekitatea eta kalitatezko hezkuntza guztientzat) indartzea; hiru, hezkuntzako langileen profesionaltasuna bermatzea eta berrikuntza indartzea; eta lau, herri hezitzaileak sustatzea, eskolaren eta komunitatearen arteko elkarlana bultzatuz. Horrekin batera, curriculum propioa duen sistema proposamena egin dute, eta ikastetxeen autonomia defendatu dute, baita zentroen parte-hartzea eta funtzionamendu demokratikoa ere.

'eus' domeinua

onartu dute

Urtebeteko ebaluazio fasearen ondoren, ICANN erakundeak baiezkoa eman dio .eus domeinuari. Interneten euskararen eta euskal kulturaren komunitatearen domeinu izateko aurkeztu zuten proiektua orain bost urte. Bide horretan "babes ikaragarria" jaso dutelako gustura dira domeinuaren sustatzaileak.

Joan den urtean, maiatzaren 24an, bidali zuten eskaria ICANNera. Ebaluazio fasera pasatzeari baiezkoa eman zion ICANNek, eta orain azken baiezkoa eman dio domeinuari. Galiziera sustatzeko sortutako .gal domeinuari ere baiezkoa eman diote.

.eus domeinua euskararen eta euskal kulturaren sustapenerako birtarteko bat gehiago izango da, Internet oinarri izango duena. Izen bat, ikur bat, sarean euskara eta euskal kulturaren ikusgarritasuna eta bere komunitatearen aitortzea ekarriko duen erreminta bat.



GAIA

Eskolako jantokia

Heziketarako gune?





Euskal ikasleen erdiek bazkaltzen dute egunero eskolako jantokian. Baliabide urriko familietako haurrei eguneko otordu nagusia eskolan doan emateko sortu baziren eren, gaur egun, nagusiki, beste funtzio bat betetzen dute: guraso biak lanean dituzten seme-alabei zerbitzua eskaintzea. Denboran aurrera egin ahala gainera izaera hezitzailea aitortu zaio jantokiari: haurrak elikatzeaz gain, higiene, autonomia, ardura eta elkarbizitza balioetan hezteko ere funtsezkoa dela diote adituek. Baina errealitatean, jantokiak heziketa behar bati erantzuten dio edota gizarte-antolaketa modu baten ondorioz sortu da eta beraz, sistemaren beharrei erantzuten die?

G

Gizarte beharrei erantzuteko sortua

Hainbat arrazoi tarteko, bazkaltzera etxera joan ezin diren haurrek jaten duten lekua da eskolako jantokia. Goizeko eskola orduak amaituta, eguerdian ikasleek izaten duten etnaren parte da. Gehienez, gela barruko jardunarekin zerikusirik ez duentartea izan ohi da. Salbuespenak salbuespen, espazio handietan ikasle multzo handiek jaten dute, zarata izugarriaren pean eta zalapartaka sarri. Askotan, gainera, ikasleei platerean jakiak zerbitzatzeko zaizkie eta haien egiteko bakarra jatea izaten da: ez dute parterik hartzen, ez zaie inolako ardurarik ematen, eta ezelako protagonismorik gabe, zerbitzuaren kontsumitzaile huts bilakatzen dira. Zenbait eskolotako ordezkariak diotenez, bazkariko eten orduetan gatazka ugari sortu ohi dira, eta hainbat arrazoi aipatzen dituzte: haurrak pilatuta daudela, giro lasairik ez dagoela, erreferentziatzeko pertsona edo autoritatea falta dela, gela barneko organizaziorik ez dagoela...

Egoera horren aurrean Euskal Herriko hainbat ikastetxetan neurriak hartu dituzte eta zenbait aldaketa eginen ari dira jantokia bera eta bazkaldu osteko denbora-tartea hezigarriago egiteko. Izan ere, adituek eta hezitzaileak bat datoz jatorria heziketarako oso une garrantzitsua dela baieztatzen. Eguneroko eginkizun bat, bazkaria, erabil daiteke hezkuntzarako bitarteko gisa. Modu autonomoan, pertsonaren zaintzara bideratutako hezkuntza-jarduerak martxan jartzeko aukera ematen du, baita bizikidetzari, gaitasun sozialei nahiz norbere buruaren ezagutzari dagozkionak ere.

Adituek azaldu bezala, elikatzeak uneak ez dio gosea asetzeko beharri soilik erantzuten, baizik eta komunikazio ekintza bat da, jarduera sozial bat. M. García eta D. Waisbrot autoreek *Pichon Riviere, una vuelta en espi-*

ral dialéctica liburuan dioten moduan, gizakiak munduarekin ezartzen duen lehen lotura elikadura-eremuan oinarritzen da, eta erlazioatzeko lehen modu horren gainean erakitzen ditu haurrak gainontzeko lotura guztiak.

XVIII. mende amaieran eta XIX.aren hasieran sortu ziren European haurrentzako lehen jantokiak. Xedea argia zen: elikadura gabeziei eta desnutrizioari aurre egitea. Orduz geroztik, historian zehar funtzio bikoitza bete du eskolako jantokiak: batetik, baliabide urriko familietako haurrei otordu nagusia eskolan doan ematea; eta bestetik, eskolatik urrun bizi ziren familietako haurrei ere zerbitzu hori eskaintzea. XX. mendearen bigarren erdian, ordea, hirugarren funtzio bat ere hartu zuen jantokiak: guraso biak lanean zituzten seme-alabei ere zerbitzua eskaintzea. Eta ondorioz, asko hazi zen jantokien erabilera. Horren adierazle dira gaur egungo datuak: euskal ikasleen erdiek eskolako jantokian bazkaltzen dute egunero.

Azken hamarraldietan, eskolako jantokiak indarra hartzen joan diren heinean eta haurren heziketarako duten balioa aitortu zaielarik, jantokiaren inguruan marko legal zehatz bat sortuz joan da. Hegoaldean Hezkuntza Sistemaren Ordenazio Orokorren urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko 65. artikuluan jasotzen da eskolako jantokiaren inguruko oinarritzako markoa. Bertan jantokia hezkuntza administrazioak ematen duen zerbitzu gisa ulertzen da, eta bere egitekoa hezkuntzaren kalitatea hobetzea dela esaten da.

Marko horren garapenak ekarri dituen araudiekin, ordea, ez daude euskal hezkuntza-komunitateko eragile guztiak ados. Hori erakusten du 2011ko urte amaieran 50 erakundek baino gehiagok sinatu zuten eskola

Eskolako jantokia

jantokietarako dekretu berri baten aldeko manifestuak. Horien artean ziren EHIGE (Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkartea), EKA (Euskal Konsumitzaileen Antolaketa), zenbait Udal, beste hainbat ikastetxe, etab. Manifestuak eskola-jantokien kudeaketa propioa defendatzen du eta indarrean dagoen araudia salatzen du, eredu bakarra ezartzen duela argudiatuta —“baztertzalea eta enpresaren onuran oinarritutakoa”—, Eusko Jaurlaritzaren eskola jangelei buruzko dekretuak, 2000. urtekoak, galarrazi egiten baitu eskolako nahiz herrietako hainbat sukaldeak haurrei jaten ematea. Lurdes Imaz EHIGeko koordinatzaileak azaldutako eran, 2000. urte aurretik, gaur egungo araudia martxan jarri zen arte, baziren hainbat ikastetxe autogestionatu, baina geroztik eskolek laguntzak galdu dituzte euren jantokiak kudeatzeko. Eta gaur egun kasurik gehienetan jantokiak zerbitzu enpresa handiek gestio-natzen dituzte. Manifestuaren sinatzaileen esanetan, eskolek eurek jantokia kudeatzeko aukera izatea ezinbestekoa da. Ez soilik kontsumo eta produkzio irizpide arduratsuen arabera jokatzeko, baita horrek guztiak haurren heziketarako sekulako garrantzia duelako ere.

Edonola ere, sorospen-izaerarekin sortu zen jantokia eboluzionatuz joan da, gaur egungo izaera hezitzaile-ira iritsi arte: elikaduran eta higienan hezteaz gain, autonomia, ardura eta elkarbizitza balioetan hezteko ere funtsezkoa dela diote adituek eta legeak ere funtzio hezitzaile hori aitortzen dio jantokiari. Baina errealitatean, jantokiak heziketa behar bati erantzuten dio edota gizarte-antola-

keta modu baten ondorioz sortu da eta beraz, sistemaren beharrei erantzuten die?

Jantokiaren eta haren funtzionamenduaren inguruan eztabaida ugari izaten dira. Gelan zenbait balio transmititzen saiatu ostean, ez al da jantoki orduan juxtu kontrakoa bultzatzen? Eskolak gehiago inplikatu behar ote luke? Eta jantokian egoten diren begiraleak, jaten emateko soilik daude edo hezitzaile ere badira? Zein izan behar du jantokiaren funtzioak? Zentzuerainoko ardura eta autonomia hartu behar dute haurrek? Sukaldeak berak zein leku izan behar du eskolako hezkuntza proiektuan?

Balio hezitzailea ezbaian

Gaur egungo euskal gizartean, txikienean kasuan behintzat, jantokia erabateko atzerapena dela iruditzen zaio Juanjo Quintela psikologoari. Aurrerapena izan zitekeen gerra ondoren, haur askok jatekorik ez zuenean, eta iruditzen zaio azken urteetako atzeraldiaren ondorioz, hainbat familia jasaten ari diren egoera ekonomiko kaskarrari erantzuteko ere balio dezakeela, baina herrialde garatu batean jantokiak desagertu egin behar lukeela uste du. Ikerketarik egin ez badu ere, asko hausnartu du Quintelak jantokiaren inguruan. Baditu sentimenduak, sententzioak, irudipenak eta usteak, eta batez ere erantzunak baino gehiago, galdera ugari.

Gaur egungo jantokien organizazioa oso konplexua da: cateringetik bertatik datozen baldintzapenak; sukaldeak eskolan bertan dagoen kasuetan ere, janaria noiz eta nola prestatzen den; begirale lanetan aritzen diren pertsonen kontratuak eta lanal-

diak; eurek bazkari orduarekin zerkusirik ez dutela dioten irakasleak; jantokian geratzen diren haurren kopuru altuak; etab. Eskenatoki horretan Quintelak ez du uste inork ezer zaintzen duenik. “Eta ez naiz inondik inora pertsonak kritikatzeko ari, e- struktura bera kritikatzeko baizik. Egitura bera baita jatorria giza-balio handiko momentua izan dadin eragozten duena. Nik aurretik giza-balioa jarriko nuke, eta hori zaintzen dugun heinean agertuko da hezkuntza-balioa ere”.

Alfredo Hoyuelosek, Filosofian eta Hezkuntzaren Zientzietan Europako doktoreak, ostera, bere egiten ditu Loris Malaguzzik eskolako jantokiaz egindako zenbait adierazpen, eta jantokia eremu hezitzaile gisa ulertzen du. Bertako langileei irakasleek dauzkaten erantzukizunak emateko garrantzia azpimarratzen du. Era berean, gurasoei eta haurrei jantokiko errealitatea azaldu behar zaiela uste du.

Eskola gehienek ez daukate sukaldari janaria bertan prestatzeko. Beraz, kanpoko enpresen bidez iristen da jana eskoletara; enpresa horiek eurek langileak izaten dituzte eskolako bizitzako tarte jakin hori zaintzeko: “Modelo horrek organizatzeko eta gauzak egiteko moduan hezitzaile izan nahi du, baina berez sinplifikatutako modelo murriztaile bat besterik ez da. Ez ditu giza harremanen konplexutasuna eta aberastasuna bere gain hartzen, eta biolentzia berri bat sortuz umeen batasuna eta sendotasuna desagiten ditu”, salatzen du Hoyuelosek Eusko Jaurlaritzak argitaratutako Ihitza aldizkarian, “Sukaldea: eskolako hezkuntzarako gunea”

izeneko artikuluan. Horrexegatik, eskolako egituraren arkitektura-tradizioak ohituta gauzkanetik bestelakoa izan behar duela uste du: “Nolakoa da eskolaren arkitektura? Zein eratarik ikusten dira eskolako jantokiak? Denbora nola bereizten da eskolan? Zergatik daude ikasleak momentu batzuetan irakasleekin eta beste batzuetan beste era bateko langileekin? Zergatik zatikatzen dugu ikasleen eskolako bizitza? Zer nolako konfiantza dugu ikasleengan?”

Izatekotan, gela bakoitzean txertatuta

Espazioa eta denbora egituratzen diren unean bertan, jantokiak berari dagokion tartea hartzen du. Denborari dagokionez eguerdian, 12:30etatik aurrera, izan ohi da jantokiaren ordua. Eskolaren arkitekturari dagokionez, berriz, ikastetxeko areto handiren bat izaten da normalki jantokia. Aldamenean, haurren irismenetik aparte, sukaldea izaten du. Baina badira, sukaldea eta jantokia eskolan bertan txertatuta duten eskolak ere. Horien artean daude hainbat haur-eskola, zenbait eskola txiki, eskola alternatibo batzuk eta baita ohiko eskolaren bat ere. Horietan eskolako eta hezkuntza-proiektuko txoko bat gehiago da sukaldea eta bertan haurrak arduratzen dira mahaia jarri, zerbitzatu, ontziak jaso eta, zenbait kasutan, baita jana prestatzeaz ere. Jateko ordua ere ez da hain zorrotza izaten; egun batetik bestera alda daiteke, haurren gogoen eta erritmoen arabera.

Izatekotan, horrelako ereduren batek izan behar luke jatordua eskolan bertan egiteko modua, Quintela-



ren irudiko. Kontzeptu gisa nahiz arkitekturari begira, eskoletatik “jantokia” ezabatu beharko litzatekeela irizten du: “Badaude euren iniziatibaz jantokiari uko egin eta jatordua euren gelara eraman dituzten hezitzaileak. Adina eztabaida liteke, baina nik ez dut uste LHko 2. mailara arte behintzat jantokiak inolako zentzurik duenik”. Aitzitik, ikusten dio zentzua janaren espazioa edo sukaldea gelan bertan, edo gelari atxikitako espazioetan izateari. Bertan jatordua egin ahalko lirerateke, baina ez hori bakarrik. Azpiegitura bat imajina daiteke

labe batekin, hozkailu txiki batekin, kanilarekin, haurrak lauzpabosnaka esertzeko moduko mahaiekin... Egunean, hiruhilekoan nahiz ikasturtean zehar eremu horretan janariarekin zerikusia duten hainbat gauza egin ahalko lirerateke: goizerdian adibidez, fruta ale bat jan, azala den artean kenduta; haurrek egarri direnean ura euren kabuz hartu; txikitatik hasita mahaia jarri eta kendu; gelatik ateratzen direnean txoriei botatzeko ogi-apurrak prestatu; gelakideen urtebetetzeak ospatu; etab.

Eskoletan ere, familietan egiten

Eskolako jantokia

direnen antzeko jatorduak egitea iruditzen zaio aproposena Quintelari. Izan ere, familietan, elikatzeko-uneak balio hezitzaile handiko momentuak izan ohi dira. Sosegu handikoak eta familiarentzako plazererako unek. “Uste dut eredu hori bera eraman daitekeela ikasgeletara. Janarekin loturiko espazio bat izango genuke. Nik mahai bakoitzean lorontzi bat jarriko nuke eta baita mantela ere. Eta heldu arduradun gisara, momentua zainduko nuke lasaitasuna eta patxara mantentzen saiatuz eta guztiok batera disfrutatzeko unea sortuz”.

Francesco Tonucci pedagogo italiarrak ere urtarrilean Gipuzkoako Eskola Txikiek antolatutako jardunaldietan izan zenean, antzeko ideia partekatu zuen irakasleekin: ikasgela bakoitza elkarbizitza unitate gisara ulertu behar dela, eta elkarbizitza unitate horren barruan antolatu behar dela jatordua bera ere, eskola jarduneko beste ekintza bat bailitzan.

Hoyuelosek, berriz, Malaguzzi-
ren esanak oinarri hartuz, sukaldearen garrantzia azpimarratzen du. Uste du beharrezkoa dela sukaldeak merezi duen lekua betetzea, sukaldea baita organizazioak bizikidetzarako duen gunetako bat. Malaguzzi-
ren hitzak gogoratzen ditu: “Normalean, sukaldea bazterren batean egoten da, baina eskolaren erdira eramaten bada, begi bistan uzten da bertan lan egiten duenaren profesionaltasun maila. Oso garrantzitsua da umeei sukaldean gertatzen dena ulertzea eta bertan lan egiten duten profesionalak baloratzea”.

Quintelak nahiz Hoyuelosek, eta hein batean, Tonuccik berak ere de-

fendatzen duten antolaketa modu horrek irakasleak, hau da, haurrentzat erreferente eta autoritate funtzioa betetzen duten heldu horiek jatorduetan gehiago inplikatzeko eskatuko luke, batez ere adin txikienetan. Horrek ez luke esan nahiko baina, sostengu gisara, jateko une horietan beste profesional batzuen laguntzarik beharko ez luketenik. Adin batetik aurrera, gainera, irakasle erreferente horren figura alboan izatea ez litzateke beharrezkoa, irakasleak gai baitira erreferentea ez den beste helduekin ere modu baketsuan eta positiboan erlazionatzeko. “Izan heldu erreferenteak, izan bestelako profesionalak, guztiak argi izan behar dute euren egiteko jatorduetan haurrari lagun egitea dela. Helduak laguntzaile izan behar du, baina inola ere ez zerbitzari. Eta beraz, xantaia emozional oro, sariak eta zigorrak, golaroak eta go-raipamenak saihestu behar ditu”, argitzen du Quintelak.

Talde-lana beharrezko

Halabeharrez, ikastetxe gehienetan jantoki bakarra daukate, espazio handi eta guztientzako bakarra. Quintelak ezin du hauteman espazio ireki bat 80 haurrekin mahai berean eserita, adin batetik aurrerakoentzat, bai akaso, eremu bereziak dituen jantoki komun bat, hainbat espazio edo txoko dituen jantokian antzeko izango litzatekeena. “Kasu horietan soilik bermatu ahalko litzateke haur guztiak eremu horretan gertatzen ari denaren jabe diren sentsazioa izatea. Hori horrela izanik, adibidez, zergatik ez dute jantokietan begiraleek haurrekin batera eserita jaten?”.

Sarritan, jantokian begirale lanean aritzen diren pertsonen irizpide hezitzaileak kontuan ez izatea egozten zaie. Beste kasu batzuetan berriz, begirale horiek irakasleengana gerturatu nahi, baina haiek jantokiarekin ezer ere ez dutela jakin nahi entzuten da. Jantokiaren inguruan sektore profesional askok hartzen dute esku eta sarritan elkarren artean gaizkiulertuak sortzen dira. Horrexegatik, Quintelaren hitzetan, ezinbestekoa da haurra erdigunean jartzea eta haren onerako izango diren gutxieneko irizpide komun batzuk ezartzea sektore guztien arteko elkarlanaren bidez: “Guztien arteko konplizitate profesionala behar da, denen artean irizpideak ezarri eta partekatuz joan, gero irizpide horiek egiteko moduak bilakatzeko”.

Ildo berean, Loris Malaguzzi-
ren esanak aipatzen ditu Hoyuelosek: “Gure eskoletan, langile guztiak (he-
zitzaileak, sukaldekoak eta garbitzaileak taldekoak) bilera pedagogiko eta formazioko kurtso berberetan hartzen dute parte. Barneko harreman hau existitzen bada eta funtzionatzen baldin bada, helburu altuak lor daitezke: umeei askoz ere seguruago sentitzen dira, batetik; eta, bestetik, ikusten dute han dauden gizon-emakumeek batera egiten dutela lan, batera egiten dutela esfortzua eta, batez ere, batera pentsatu eta eztabaidatzen dutela”.

Beste alorretan bezala, jantokian ere haurrek ahalik eta autonomia eta ardura handienaz joka dezaten bideak ireki behar direla uste dute adi-tuek. Izan ere, 2-3 uretik aurrera, heldu-
kasuan ohikoak diren funtzioak

Eskolako jantokia Heziketarako gune?

hartzeko egiten zaizkien proposamen guztiak gustura hartu ohi dituzte. Hortaz, litekeena da umeak mahaia pozik jartzea, eta gustura zerbitzatzeara, baina horretarako aukerak eman behar zaizkio.

Higiene ohiturak dira eskolako jantokiari loturik, hezkuntza komunitateak garrantzia ematen dion beste heziketa-alderdi bat. Quintelak, ordea, ez du uste higienearekin obsesionatu behar dugunik: "Haurrak jantokira doazenean zer egin behar dute? Guztiok jan aurretik egiten duguna: eskuak garbitu, mahaia presatu eta, lasai-lasai, eseri eta jan. Baina ez dira meategietan lanean aritu eta jantokira doazen meatzariak. Gainera, giroa lasaia eta sosegatua bada, haurrak oso garbiak dira jaten. Eta ohikoa baino gehixeago zikitzen bada haurra, zer egingo diogu, bada? Zorionez, ez daukagu arropak garbitzera errekarra joan beharrik".



Lekeitioko eskola publikoan nagusienek gazteenei laguntzen diete.

Aire zabalean jateko aukera lantzea da jantokiarekin loturik egin daitekeen beste ekintzetako bat. Batez ere, eskolek inguruan eremu berdeak badituzte, familian egin ohi den moduan mantak eta bazkaria hartu

eta kanpoan bazkaltzea aukera aproposa litzateke. Zenbat eta toki egokiagoa eta erosoagoa eskaini haurrei jateko, orduan eta hobeto egongo dira, eta haiek ondo badaude, hezitzaileak ere bai.

Janaria, kopurua eta autoerregulazioa

Livornoko (Italia) eskola bateko jantokiko esperientzia kontatzen du Francesco Tonuccik *La escuela como investigación* liburuan. Begiraleek hala erabakita, eskola horretan haurrek eurek zerbitzatzeko dute nahi dutena. Horrek ez du esan nahi batek zerbitzari lanak egiten dituenik, baizik eta haur bakoitzak lapiko eta azpilak dauden tokira gerturatu eta berak nahi duenetik berak nahi duen adina hartzen duela. Tonuccik dioen moduan, Livornoko eskolako ereduak haurrari aurrean prestatuta jartzen

zaion janari platerkadaren aurka egiten du. Izan ere, sarri, dietistek agindutako kopuruak ematen zaizkie haurrei, guztiei berdin eta aurrean duten dena jatera behartzen dira.

Livornoko esperientzian berriz, haurrari eragiketa logiko konplexu bat egiteko eskatzen zaio: berak erabaki dezala, duen gosearen arabera, zertatik eta zenbat jan nahi duen. Hau da, haurrei eurei ematen zaie jan nahi dutenaren erabateko kontrola.

Hasieran esperimentua zaila izan zen arren, hainbat haurrek gehiegi

hartzen zutelako eta janaria bota egin behar izaten zelako, urtebeteren buruan emaitza ezin hobeak eman zituen. Izan ere, pixkanaka haurrak elikagai guztietatik probatuz joan ziren eta bakoitzak komeni zitzaion kopurua hartzen zuen. Dieta on batera gerturatzeaz gain, haur bakoitza zituen behar dietetikoetara egokitu zela ohartu ziren hezitzaileak. Haurraren konfiantza izan zuten begiraleek, eta hainbat hilabeteren buruan ohartu ziren haurrak euren burua autoerregulatzeko gai zirela.

Lekeition, jatorduari balioa eman nahian

Adituek diotenaren arabera, idealena hurrek etxean bazkaltzea da, edota eskolan geratzekotan, bakoitzaren gelara atxikitako espazio txikietan. Batean ala bestean, ahal dela, familia giroan. Gauregungo errealitatea ordea, haur eta familia gehienek kasuan, beste era batekoa da. Guraso askok egun osoz etxetik kanpo lan egiten dute eta ez dute hurrekin bazkaltzeko modurik. Eskola gehienetan berriz, haur askorentzako jantokia prestatu eta kudeatu behar izaten dute, eta teoria aurreratuenek gauza bat esan arren, sarri eskura dituzten baliabideekin moldatu behar izaten dute jantokia ahalik eta modurik egokien antolatzeko.

Eskolako jantokia ahalik eta hezitzaileena izan dadin lanean ari dira Lekeition. Hezkuntza komunitatea nahiko kontzientziatuta dago jatorduak haurren heziketarako izan dezakeen garrantziaz. Bertako eskola publikoan nahiz Azkue ikastolan zenbait urrats eredarri ari dira ematen jatordua eta bazkaldu ondoko denbora tartea eskola-jardunaren barnean txertatu eta ahalik eta hezigarriena egiteko. Egitasmoak eskolatik eta ikastolatik sortuak diren arren, Lekeitioko Udala ere inplikaturik dago. Horren adierazle da 2013ko ekainean eskola bakoitzak bere jantokia kudeatzearen aldeko manifestua osoko bilkuran onartu izana.

Lekeitioko eskola publikoak ere hasieratik egin zuen bat manifestuarekin. Oraindik ere bertan prestatzen dute bazkaria, baina lehen janari guttia euren kabuz erosten zuten, tokian

tokiko eta sasoiaren sasoiko jakiak, baina Eusko Jaurlaritzako 2000. urteko araudiaren ostean, zenbait jaki kanpotik ekartzen hasi behar izan zuten. Hala ere, antolaketa moduan hainbat aurrerapauso ari dira ematen azken lauzpabost urtean. Elkarbizitza proiektuaren baitan egitasmo bat abiatu zuten bazkari garaiko tartea hobeto antolatzeko: otordu garaia eta bazkal osteko denbora libre bereizi zituzten proiekturako.

Jantokiko tartean arazo eta gatazka asko sortzen zirelako erabaki zuten Lekeitioko eskola publikoan hainbat aldaketa egiten hastea. Bertan 500 ume inguruk bazkaltzen dute eta proiektu berria martxan jarri aurretik egunero bazkalorduko etenean umeen artean gatazkak izaten ziren eta zuzendaritzako kideek esku hartu behar izaten zuten: “Gurean moduko jantokietan, hainbeste ume bazkaltzen duten tokietan, dena oso ondo antolatu behar da, bestela zoramena bihurtzen da”, hala argudiatzen du Xabier Iturbe Lekeitioko eskola publikoko jangelako arduradunak.

Jantokian ordena ezartzeko egin zuten aldatetako bat hurrei ardurak ematea izan zen. Hiru txandatan bazkaltzen dute hurrek. Lehenik txikienek eta haiekin LH6ko haurrak egoten dira laguntzen: bazkaltzeko orduan, bainura irtetean, haginak garbitzean... Eta bazkal osteko denboran ere hainbat jolas eta ekintzetan haur nagusienak txikiagoekin egoten dira haiei erakusten, gidatzen...

Bigarrenik, bazkal osteko tartera-

ko hainbat jardura zehatz antolatu zituzten (munduko eta bertako jolasak; joko kooperatiboak; zeramika, pintura edota antzerki tailerrak; etab.) eta hurrei horietan parte hartzeko aukera eman zieten. Horrez gain, eskolako baliabideak probesten ere saiatzen dira horiek erabili nahi dituzten haurren kasuetarako: liburutegia, informatika gela, gimnasioa, etab.

Begiraleen kasuan azkenik, bi aldaketa nagusi egin zituzten: batetik, begirale bakoitzari ume talde finko baten ardura eman zioten, eta irakasle tutorearen figuraren antzeko bilakatu zen. Hala, haur bakoitzak bere heldu erreferentea du jantoki garaian ere; bestetik berriz, begiraleak formatu eta ahaldundu egin zituzten. “Gu eskola-komunitatea garenez begirale horiek eskolako haurren senideak ziren, gurasoak kasurik gehienek. Beraz, hezitzaile izateko formazioa jasoko zutela adostu genuen eta Urtxintxarekin bi urtez prestatu ziren. Hainbat eduki eta irizpide pedagogiko landu zituzten: umearen garapen ebolutiboa, jolasak, zelan erantzun gatazkak sortzen direnean, nola errespetatu umearen autonomia...”. Hala, begiraleek euren buruaren gaineko konfiantza irabazi zuten, eta umeen aurrean, aurrez ez bezalako arduraz jokatzeko hasi ziren. Irakasleak bezala, autoritate figura bilakatu ziren.

Lekeitioko eskola publikoan badakite hainbat zentrotan hurrek inplikazio handiagoa izaten dutela jatorduetan: mahaia eurek jarri eta jasotzen dutela, zenbat eta zertatik jan

nahi duten erabakitzen dutela... Baina Iturbek dioenez, horretarako denbora gehiago eta lasaitasun handiagoa beharko lukete eskolan: "Oraingoz jantokiaren bueltan egin ditugun aldaketek emaitza oso onak eman dituzte, eta momentu honetan haurren antolaketari dagokionez hainbat proba ari gara egiten. Pixkanaka, baina hobetzen goaz".

Filosofia aldaketa

Lekeitioko Azkue ikastolan argi dute jantokia heziketarako gune aproposa izan daitekeela, nahiz eta orain arte gutxi erabili duten. Filosofia aldaketa bat egin gura dute jantokiaren inguruan: batetik, haurrak jatera joaten direnean irizpide hezitzaileen arabera jokatzeko; eta bestetik, sukaldearekin nahiz janariarekin loturik daudeneskola-jardueretarako erabiltzeko. Ez dute nahi jantoki ordua eskolaz aparteko kontu bat izaterik, eskola-jardunean txertatuta egotea baikik: "Guk ortua daukagu, eskolaz kanpoko ekintzak, jantokia eta patio ordua. Heziketarako espazioak dira, ezinbestekoak gainera. Geletan landutakoa errealitatera eramane behar dela esaten dugu eta hortxe daukagu aukera paregabea. Egoera oso errealak dira, kalean topatzen direnak. Jantokiaren kasuan ere, gure helburua horixe da: ez dadila izan zerbitzu bat eta haurrak inplikatu eta parte hartu dezatela. Jarduera osagarriak hezikuntza proiektuaren barnean txertatu nahi ditugu", dio Jose de la Torre ikastolako zuzendariak.

Lekeitioko ikastolan argi dute, ahal dela, haurarentzat onena bazkaltzera etxera joatea dela, eta gura-



Azkue ikastolan gosari osasungarriaren egitasmoa jarri dute martxan.

soei ere horixe gomendatzen diete. Kasu askotan, ordea, ezinezkoa da, eta beraz, eskolan geratzen dira haur horiek: 400 ikasle ingurutik 150 bueltan, hau da, haurren % 37 inguru. Horientzat jantokia eta jan osteko denbora tartea ahalik eta hezitzaileena izan dadin saiatzen dira.

Haurrik txikienek euren hezitzaileekin gelan bertan bazkaltzen dute. Haur Hezikuntzako gainerako haurrentzat, gelaren alboan sukalde berri bat jarri dute eta jantokia atondu. Datorren ikasturteetik aurrera hasiko dira erabiltzen: "Euren erritmoak errespetatzeko bidea eman dezakeela uste dugu; gainera irakasle on artean adostu dugu haur horien hezitzaileek ere jantoki ordu horietan inplikatu direla, nahiz eta oraindik nola ez dugun erabaki. Haurrei eurei sukalde erabiltzeko aukera eman nahi diegu, eta mahaia ere eurek jarri eta jasoko dute", azaltzen du Aitor Txopitea ikastolako jantokiko arduradunak.

Nagusiagoekin ere hainbat aldaketa sartu dituzte azken urteetan jantokiko tartea hobetzeko helburuarekin. Esate baterako, LH1etik aurrera mahaiko arduradunak izendatu dituzte eta euren egitekoa da begiraleei mahaia jasotzen, jana banatzen, eta

beste hainbat egitekotan laguntzea. Horrez gain, haurrek jantokian bete beharreko hainbat arau dituzte, hala nola, zarata mugak errespetatzea, musika aparatutik eta mugikorrik ez erabiltzea jateko denboran, janari berriak probatzeko konpromisoa hartzea, mahaikoek amaitu arte itxarotzea...

Haurrekin ez ezik, begiraleak prestatzen ere dezente lana egin dute Lekeitioko ikastolan. Haurrei janaria ateratzeaz gain haiekin eserita egoteari ere garrantzia ematen diete. Horrez gain, begiraleek ere badituzte kontuan izan beharreko hainbat arau. Esate baterako, janaria ezin dute atera haurrak mahaian egon arte edota janaria osorik, txikitu gabe, atera behar diete haurrei eta fruta azalarekin.

LHko ikasleekin gosari osasuntsuaren egitasmoa ere egin dute aurtun lehenengo aldiz. Adin horietako haurrek, txandaka, lau astelehenetan eskolan gosaltzen dute, elikatzeko ohitura osasuntsuak ezagutzen joan daitezten. Gainera, nutrizionista batekin egiten dute lan ikastolan. Bazkari orekatuak diseinatzen ditu hark, eta aurtun lehenengo, gurasoentzako afari proposamenak.

koldo saratxaga



ELKARRIZKETA

“Partekatzeak lehiatzeak baino lehentasun handiagoa izango duen gizarte-eredua dut helburu kooperatiban eta hezkuntzan”

Harreman eredu berri bat aldarrikatzen du Koldo Saratxagak (Sopuerta, 1947) hala kooperatibetan nola hezkuntzan. Pertsonak garrantzia izango duten eredu bat bilatzen du, etika eta gardentasuna nortasun ezaugarri izango dituen gizarte-eredu bat. Bere estiloaren ikurretako bat Irizar kooperatiba izan da, eta gaur egun Ner group-en dihardu, baina hezkuntzan ere egin ditu sartu-irtenak, bai irakasle bezala eta baita guraso bezala ere, baina bereziki hausnartzailerik gisa: “Nire iritziz, eskolak gaur egun baino baliabide gehiago eduki behar ditu: profesional onenak eta, hala nola, garaian garaiko behar material eta teknologikoak aseak. Gizartearen konfiantza eta aitortza handia eduki behar ditu, sormen eta esperimentazio prozesu jarraia izan behar da, eta taldeko lana bultzatu behar du, indibidualismoa gutxituz, partekatzea balioetsiko duena eta ez lehiatzea”.



Kooperatibaren mundutik zatoz, esparru hori berdiseinatzen aritu zara. Harreman eredu berri baten beharraz diharduzu, eta horren barnean hezkuntzaren gainean ere asko hitz egin duzu azken aldian. Zerk bultzatuta?

Betidanik pentsatu izan dut mundu honetan “aukera berdintasuna”-ren kontzeptua hiri-legenda bat izan dela eta hala jarraitzen duela izaten. Genetikaz gain, lekuak, familiak eta egoera ekonomikoak zerikusi handia dute pertsona bakoitzaren etorkizunean.

Haatik, uste dut egoera hauek orekatzeaz arduratu egin behar dela jendartearen, eta ahalegina egin behar duela aukeren berdintasuna benetakoa izan dadin.

Hitzaldi eta solasaldi guztietan errealitate zientifiko bat azaltzen dut, bizi-tza asko errazten duena, eta ez da oso kontuan izaten: “munduan ez daude bi pertsona berdin, eta, gainera, egunetik egunera ezberdinak gara”. Honakoa erantsi ohi dut: “Gora aniztasuna!” Aniztasun horretatik hautematen dut gizakiok elkar eragiteko eta harreman-tzeko dugun beharra. Hor hautematen dut emozionala, sentitzen duguna pentsatzen eta egiten dugunaren aurrekoa dela. Pertsonen ziklo naturala “sentitu, pentsatu eta egin” dela ulertzen dut.

Aniztasun hau aproposa da taldean lan egiteko, eta nor bere onena emateko aukera ematen du, eta ez dauka besteek ematen duten horren berdina izan beharrik.

Ner group-en partekatzen dugun harreman-eredu berrien oinarrietako bat hori da. Uste dut, baita ere, irakaskuntza-hezkuntza aldia pertsona guz-

tiak baldintza berdinetan izan behar duten aukera bat izan behar dela.

Enpresetan pertsonen arteko harreman estilo berri bat aldarrikatzen duzun moduan, hezkuntzan ere ereduak aldatzeko beharraz hitz egiten duzu. Zergatik?

Guk proiektuei buruz hitz egiten dugu. Enpresa bat ondasunak eta zerbitzuak sortu eta merkatuari eskaintzen dizkion leku bat da. Erakunde bat gauza bera da baina pertsonak barnebiltzen ditu, terminologikoki. Eta proiektu bat, guretzat, batzen dituen helburu eta ilusio berdinetan dituzten pertsonen artean ondasunak edo zerbitzuak sortzen dituen leku bat da.

Uste dut irakaskuntzako erakundeak, goragoko maila bateko organismoen —politikoen— menpeko direnak eta horiek orientaturik daudenak, oso urrun daudela eskolak, familiak edo gizarteak sor dezaketean hezkuntza proiektutik. Gaur egun, uste dut, irakaskuntza prozesu batetik gertuago dagoela.

Zer nolako gizarte ereduak duzu helburu kooperatibetan zein hezkuntzan planteatzen duzun harreman estilo berriekin?

Partekatzeak lehiatzeak baino lehentasun handiagoa izango duen gizarte-eredua dut helburu kooperatiban eta hezkuntzan proposatzen dudana harreman estilo berriekin. Etika eta gardentasuna nortasun ezaugarri izango dituen gizarte-eredu bat. Giza Garapen Justu eta Jasangarri bat ahalbidetuko duen gizarte bat.

Gaur egun, honetatik guztitik oso urrun gaude, hasi berri dugun aro aldatuta hau pasatzen utzi ezin dugun aukera bat da. Horrek gizabanakoaren lehen urteetan balioetan oinarri sendoa ezarri behar dela esan nahi du.

Hamalau urtez zure alaben ikastolako hezkuntza-komunitatean inplikaturik egon zinen. Zer ikasi zenuen han?

Nire bizitzako hamalau urte haiek benetan ederrak izan ziren. Diktadura

koldo saratxaga

E

“ **Ezarrita dagoen botereari ez zaio interesatzen bere hiritar guztiek eskuin hemisferioa garaturik izan dezaten; ez litzateke erraza izango haiek denak maneiatzea** ”

“ **Aspertu gabe errepikatzen diet gazteei pentsa dezatela zeri eskaini nahi dizkieten euren bizitzetako hurrengo orduak** ”

bete-betea geunden eta jakitun ginen geure hezkuntza eredu propioa sortu behar genuela. Beharrezkoa zen, erakuntzak egiteaz gain eskolaz kanpoko gauza guztietan parte hartzea, nagusi zen eredutik urrunduko zen eredu pedagogikoa diseinatu behar genuen, geure nortasun ezaugarri propioak emango zizkiguna.

Alor ugaritan hartu nuen parte, guztia baitzegoen egiteko, baina denbora guztian egon nintzen talde pedagogikoan. Dinamika horrek Euskadiko beste ikastola asko ezagutzeko eta haiekin ekimenak partekatzeko aukera eman zigun, gaiari buruz nazioarte mailan idatzia zegoen guztia estudiatzeaz gainera. Gaur egun, ikastola horretan ez dago familiei euren seme-alaben hezkuntza-etorkizunean aktore, arte eta parte izateko aukera ematen dien estilo hartako ekintzarik. Dagoeneko ez dago hezitzaileekin—zeinak superilusio-naturik eta superkonbentziturik baitzeuden— partekatu genuen harreman handi haren parekorik.

Eskolak aurredeinatuta daudela eta horrek haurrei hegoak ebakitzen dizkiela salatu duzu behin eta berriz. Zein izan daiteke alternatiba?

Hain zuzen ere, oso prozesu administratiboa da eta, neurri handi batean, aurrez ezarrita dagoen eredu jarraitzea behartzen du, ezker hemisferioaren garapenean, (hau da, hizkuntzaren lengoaiaren arduradun den hemisferioan, gaitasun linguistikoa, analisi gaitasunean eta problema matematikoen ebazpenean, memoriaren, pentsamendu logiko eta arrazionalaren hemisferioan) oinarriturik dagoen eredu. Bietan intelektualena, formalena eta konbentzionalena da; oso ondo xurgatzen eta jasotzen ditu informazio teorikoa, numerikoa, izenak, definizioak eta datak. Kontrara, bere sentimenduak kontrolatu eta eragozteko ohitura du. Antolaketa, ordenaren, egitura-aren eta plangintzaren arduraduna da. Oso esanekoa eta diziplinatua da, arauen, erregelen, protokoloen, legeen eta estandarizaturiko bideen arabe-

ra funtzionatzen du. Eta beldurra erabiltzen du balizko mehatxu eta arrisku-etatik onik ateratzeko.

Ez dago gure giza izatearekin lotzen gaituen dimentsio emozionalarekin eta espiritualarekin bat egiten duen eskuin hemisferioa garatzeko denborarik, ez gogorik; hemisferio horrek gauzen alderdi kualitatiboa, ukiezina eta immateriala sentitzen laguntzen digu. Bi hemisferioetan artistikoena, originalena eta errebeldeena da; normatik atera eta sozialki ezarrita dagoenetik harago joatea gustatzen zaio. Sena, irudimena, berrikuntza eta pentsamendu sortzailea garatzen laguntzen digu; ez zeuden eta itxura batean posible ez ziren gauzak eta ideiak ikusteko erraztasuna du. Azken batean, geure barneko ahots propioa jarrai dezagun konfiantza ematen digu, eta beraz, geure ibilbide propioa egitekoa.

Urte berean jaiok direlako ikasleak multzokatzea astakeria iruditzen zaizu, baita notak eta kalifikazioak ere, eta irakasle bakoitzeko 24 haur gehiegitxo direla diozu. Nola eman buelta egoera horri?

Munduan oso eredu gutxik lehentzi dute hezkuntza industriaren, segurtasunaren edota ekonomiaren gaitetik... Finlandia izan liteke hurbiltzen zaion eredu bat. Ezarrita dagoen botereari ez zaio interesatzen bere hiritar guztiek eskuin hemisferioa garaturik izan dezaten; ez litzateke erraza izango haiek denak maneiatzea.

Gertukoenean, Espainiako Estatu batek, sei-zortzi urtean behin hezkuntzaren oinarriak ezartzen dituen legeak interes politiko-ideologikoagatik ezartzea, egokitasunaren antipodetan dago, eta honek bete-betea eragiten dion Euskadiri. Hemen ere ez diogu eman daukan garrantzia, aitortutako eskuduntzen barruan. Ez da parte hartu duten alderdien artean erakarmen handiena izan duen Sailburutza. Benetan tristea. Berrogei urteko autonomia joan da, herri batek etorkizuna definitzeko eta aldatzeko beharrezko denbora, eta ez dugu jakin ezberdinak izaten. Herri

batek, osatzen duten hiritarrek eta beren politikariek, lehentasunak argi izan behar ditu etorkizuneko ikuspegiarekin. Argi zegoen eraikuntzak eta azpiegiturek ez zutela lehentasun izan behar. Hezkuntza eta aukera berdintasuna lehenesten dituen gizarte batek goi mailako balioak ditu eta horrek gizarteari, osasungintzari, alor ekonomikoari eta ingurugiroari askoz modu justuagoan eragiten dio.

Hain zuzen ere, jaiotzen den izaki bakoitza paregabea da, baina bere bizitza berehala hasiko da egituratzen adinaren arabera, urte mordoxka bat iraungo duen ibilbidea beste hogeita hiru kiderekin zeharkatuko du, urteko irakasle batekin, aurrez ezarritako irakasgaietan oinarritzen den sistema batean; azkar, inor urduritu baino lehen irakurri eta idatzi beharko du, berehala has dadin ezker hemisferioa garatzen, azterketa estandarrei aurre egin beharko baitie, paregabeak diren ikasle guztientzako berdinak baitira azterketak, eta gozatu edo sufritu egingo dute euren gurasoen espektatiben arabera, eta euren neba-arrebak, lehengusu-lehengusinak, lagunak edota bizilagunak baino hobeak baldin badira. Horrela daramatzagu hamarkada mordoa. Bejondeigula!

Hezkuntza-eredu egokirik ezagutzen duzu? Zein dira horretarako gakoak, zure uestez?

Ner group-eko hainbat kiderekin batera Bartzelonako Montserrat, Bizkaia ikastetxea eta Zornotzako Amara Berri ezagutzeko aukera izan nuen duela hiru urte. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina kasu guztietan estandarretik aurrera daudela iruditu zitzaizgun. Adibide gisa aipatuko dizkizut Amara Berri Zentroen sareak (hogei bat) eskaini zizkigun hatsarre metodologikoak:

Sozializazioa: Sozializazio printzipioak garmatza gizarteko gizaki izateara. Besteekiko elkarrekintzak aurrera egiten laguntzen digu, geure eskemak aldatzen eta horregatik, planteatzen diren ekintza guztiek gizarte mailako tes-



tingurua dute.

Jarduera: Norbanakoaren ekimen gaitasuna sendotzea. "Ikasleek euren kabuz egin dezaketen guztia, ez dezatela irakasleek egin". Burua argi, gogotsu eta ekimenarekin eta jakin-minarekin eduki dezaten nahi da.

Indibidualizazioa: Ikasle bakoitzak bere mailaren eta eritmoaren arabera lan egin dezan programa bat ahalbidetu behar du ikastetxeak, ikasle bakoitzaren gaitasunaren eta dagoen egoeraren arabera.

Sormena: Sortzeko gaitasuna edo trebezia. Gizaki guztiok dugun gaitasuna da, eta alor guztietan bultzatzen dugu, ikasle bakoitzak barruan daukan onena atera dezan eta nor bere berezitasunaz jabe dadin.

Askatasuna: Indibidualaren eta sozialaren artean dagoen bizi-egoera. Besteak errespetatuz norberak pentsatzeko, adierazteko, aukeratzeko eta den bezala agertzeko duen eskubidea da, eta eskubide honek ezartzen du guk muga soziala deitzen dioguna.

Globalizazioa: Sistema ireki baten barruko bizi-prozesu gisara ulertua.

Normalizazioa: Testuingurua eza gutzea eta menperatzea, bertan kokatzea.

Berrikuntzaz behin eta berriz hitz egiten da enpresen alorrean. Baina, berrikuntzaz hitz egiten denean, zer adierazi nahi da?

Esaten dut berrikuntzaren kontu hau, esportatzearekin eta lehiakortasuna hobetzearekin batera, krisitik irteteko politikariek eta tertuliakideek asperitu arte soluzio gisa errepikatzen duten mantra bat dela. Horrez gain, ekintzaile izatearena eransten dute.

Alabaina, oso gutxi hitz egiten da pertsonen buruz eta, are gutxiago, pertsona horiek euren ekintzaren txotxongilo izan beharrean aktore izan daitezten antolakuntzan egin behar diren aldaketei buruz. Aldaketa horiek egin ezean, txotxongiloek aurrez beste bantzuek ezarritako prozesuen arabera egingo dituzte zereginak, horixe baita nagusi den piramide-eredua. Hauxe da, nire ustez, mundu osoko era guztietako erakundeak eraberritzeko modurik onena.

Era berean, esan behar da eraberritzea edo berrikuntza uzta bezala dela, eritearen eta horren garapenaren arabera. Ereintza sormena bezalakoa da, gizaki guztiok berez daukagun ezaugarria, eta motibaturik, ilusionaturik eta edozelako prozesutan parte-hartzaile libre izanik, ondasun eta zerbitzu bihurtzen dugu, gure gizarteari balio berri bat erantsiz.

Eta berrikuntzaz zein toki izan beharko luke eskoletan?

Amara Berrin ezarritako hatsarre metodologikoek lagun dezakete ikusarazten.

koldo saratxaga

E

“Ikastetxeak eurak dira barne mailako hausnarketa bat egin behar dutenak, zer proiektu bultzatu zehaztu behar dutenak eta gauzatu behar dutenak”

“Inork esan al die egunak hogeita lau ordu dituela, urteak 365 egun eta euren bizitzarako eta ongizaterako bizitza-harreman esparru garrantzitsua dagoela laneko zortzi ordu horietatik landa?”

Eremu askotatik esaten zaio eskolari gaur egungo merkaturako eta gizarterako prestatu behar dituela gazteak. Ados zaude horrekin?

Gaur eguneko beharrentzat prestatzea baino egokiagoa litzateke etorkizuneko beharrentzat prestatzea. Azken bi urte hauetan, unibertsitateetako azken ikasturteko ikasleekin nire egonezina partekatzen dudanean, honakoa esan ohi diet: “Duela hamarkada bat esaten nizuen ez zenidatela inbidia-rik ematen zuen hogeita piku urte horiekin eta bizitza osoa aurretik duzuela, izan ere, gehiengoak errealtate sozialean duzuen eragina lau da, indibidualismoaren eta kontsumoaren dinamika orokorrak eraman zaitzaten uzten duzue, eta etorkizun hori ez da oso erakar-garria”. Orain beste hau esaten diet: “Une honetan inbidia ematen didazue, orain hasi dugun eta hogeita-hogeita hamar urte barru errealtate izango den aro aldaketaren partaide izango baitzarete, eta aldaketa honetan, iraultza honetan, bai parte hartzea gustatuko litzaidake. Ez duzue epe laburrean lan bat bilatzeagatik kezkatu behar, bizitza egokitu zaizuen historiako une honetako parte izateko modua bilatu behar duzue. Nahi baduzue, zuen eta zuen ondorengo etorkizuna diseina dezakezue”.

Horretarako askatasuna eta gizadiaren etorkizuna berriro diseinatzeko giltzarri diren gaiak modu irekian jor-ratu ahal izateko arragoa behar luke izan gaur eguneko eskolak.

Lan-mundura iristean, zein dira gazteek izan ohi dituzten gabezia nagusiak? Eta indarguneak?

Indargunea euren espezialitatea definitzen duen oinarri teorikoa izan ohi da, eta baita euren eskemen arabera errealtateko ekintzetan inplikatzeko erakusten duten jarrera argia ere. Hobetu beharreko alderdien artean, balioei buruzko hainbat gabezia erakusten dituzte, ametsak, sormena, begietako dirdira, arriskatzeko gaitasuna, komunikatzeko gaitasuna, lidertza, nia ahaztu eta erakundeak osatzen dituz-

ten pertsona anitzen artean eroso integratzea eta ez soilik adinkideekin, bizi-lagunekin edo ikaskideekin harremanak izatea.

Gaur egun enpresetan jakintza baloratzen dela diozu, baina nola sortzen da jakintza? Eskolak zein funtzio bete dezake horretan?

Nire ustez bada jakintza nola lortzen den zehazteko modu bat: Formazioa (F1) + Informazioa (I1) + Esperientziak (E1) = Jakintza

Honako honekin jarraitzeko: Jakintza (J1) + Formazioa (F2) + Informazioa (I2) + Esperientziak (E2) = Jakintzak (J2) eta, horrela, ondoz ondo. Etengabeko formazioa eta informazio eguneratua ez lirateke aski izango etengabe esperientzia berriak izango ez bagenitu. Hau zeregin zehaztuak eta errepikakorrak dituzten eta ezustekoren bat dagoenean goitik dagoen norbaiti galde-tzen dioten pertsonen kontrakoa da. Gauza bera gerta liteke etxean edo eskolan.

Epidemia hau taldeko lanarekin, gardentasunarekin, etikarekin, askatasunarekin eta parte hartzaile guztien eskuzabaltasunarekin gaintzen da.

Irakasle asko arduratuta daude pertsona globalak, osoak hezten. Gaur egun eskola organizatua dagoen moduak (irakasgaiak, espezializazio goiztiarra...) pertsona zatikatzen duela uste dute eta hori etorkizunerako kaltegarri izan daitekeela pertsonarentzat. Zer esango zenieke irakasle horiei? irakasle horiei?

Ez dut uste aurrean ikusten dugun etorkizunari begira, egokiena denik.

XIX. mendeko irakaskuntza eredu bat daukagu, trenbidearen garaikoa, industria eskulan gaituagoa eskatzen hasi zen garaikoa. Ez dut uste onargarria denik XXI. mendeko irakaskuntza zentroak, formazio profesionala edo goi mailakoa enpresa handiek hurrengo bost edo hamar urteetan —harago ezin baita ikusi— izango dituzten beharrezko araberako formazioa izango duten gazteak “ekoiztera” bideratu

behar denik. Bide batez esanda, ez dauzkagu kontuan neurritxiki eta ertaineko enpresak, gazte horien ehuneko laurogeia hartuko dituztenak, hain zuzen ere. Gaur egun, hogeituroko pertsona batek berrogeita hamar urteko lan-bizitza dauka aurretik. Inork ba al daki zer espezialitate behar izango dituen berrogeita hamar urte horietan? Inork esan al die heren batek ez duela lan egin ikasi duen horretan? Inork esan al die egunak hogeita lau ordu dituela, urteak 365 egun eta euren bizitzarako eta ongizaterako bizitza-harreman esparru garrantzitsua dagoela laneko zortzi ordu horietatik landa? Esan al diete pertsona izanik gizarteko zati nagusi direla eta horrexegatik harremanak izan eta elkarbizi behar dutela pertsona ezberdinekin?

Benetan, esango nieke erronka zoragarri bat daukatela aurrean eta ez dela zain egon behar modu tradizionalan, murtzikaturik, eman diezazuten ezer, baizik eta borroka egin behar dela lortzeko.

Irizar enpresako nahiz NER taldeko kooperatibetako zein enpresetako zure bidea eredutzat hartzen da mundu



guztian. Zein dira eredu horren gakoak? Eta zer hartu dezakete eskolek eredu horretatik?

Ner group-en gure estiloa zehazten dugu eta tradizionalari edo nagusi denari aurre egiten dio. Erreferentzia hauetatik ateratzen dira ezarri nahi diren adibide eta errealitate guztiak.

Honako irizpide hauetan oinarritzen da organizazio-estiloa: Harreman-tzeko Estilo Berria (ner, gaztelaniaz): etika, gardentasuna, komunikazio-informazioa, konfiantza, talde autokude-atuak, askatasuna, ardura, erabakiak elkarrekin, etorkizuneko ikuspegia, elkartasuna, ez dago ordu estra ordaindurik, kaleratzerik ez, gizartean integraturik... Eta proiektuaren ardura partekatua da.

Aldiz, nagusi den eredu tradizionala irizpide hauetan oinarritzen da: aginte katea, prozesu eta prozedurak, kontrola, komunikazio gabezia, gardentasun gabezia, etika falta; jabetza/zuendaritza eta langileen artean zatiketa; uzta jabetzarentzat, ekintza/lanen bermea... Eta, kasu hauetan, proiektuaren ardura jabetzarena da.

,Zer eskatuko zenioke hezkuntzari?

Hezkuntzari buruzko definizio bat, beste askoren artean, honako hau izan liteke: “Norabide ugariako prozesua, zeinaren bidez jakintzak, balioak, ohiturak eta jokatzeko moduak transmititzen diren. Hezkuntza ez da soilik hitzaren bidez gauzatzen, gure ekintza, sentimendu eta jarrera guztietan dago”.

Nire iritziz, eskolak gauregun baino baliabide gehiago eduki behar ditu: profesional onenak eta, hala nola, garaian garaiko behar material eta teknologikoak aseak. Gizartearen konfiantza eta aitortza handia eduki behar ditu, sormen eta esperimentazio prozesu jarraia izan behar da, eta taldeko lana bultzatu behar du, indibidualismoa gutxituz, partekatzea balioetsiko duena eta ez lehiatzea.

Dagokion gizarteari begiratu behar dio, irakasleei, ikasleei, familiei eta ingurune soziokulturalari. Burokratizazio eta hierarkizazio gutxiago, freskotasuna, sormena, askatasuna, eskuzabal-tasuna, konfiantza eta elkarrizketa.

Ikastetxeetan nire ezinegonak kon-tatzeko aukera izan dudana guztietan, harreman estilo berriaz zer ulertzen du-gun azaltzeko aukera izan dudana ba-koitzean, hainbat irakasle gerturatu izan zaizkit euren zentroak behar du-na horixe bera dela esatera.

Ikastetxeak eurak dira barne maila-ko hausnarketa bat egin behar dutena, zer proiektu bultzatu zehaztu behar dutenak eta gauzatu behar du-tenak, hainbatek dagoeneko egiten duten eran. Ez dezagun ahaztu arau guztiak guk nahi dugun ibilbidea daukatela. Aspertu gabe errepikatzen diet gazteei pentsa dezatela zeri eskaini nahi dizkieten euren bizitzetako hurrengo orduak. Badira bizitza bila igarotzen dutenak eta sekula egiten ez du-tenak. Kontua da ez dakitela zer bila-tzen duten eta, era horretan, ez dute i-noiz aurkituko. Irakaskuntza aurkitu nahi den ardura bat iruditzen zait, argi i-zan behar baita zeri eskaini nahi zaiz-kion norbere bizitzako ordu asko eta asko. Ez bada hala, hobe da beste ardu-ra bat hartzea, garrantzi gutxiagokoa, noski.



0-3. Hezitzaileen formazioa

Zaintza: higiena

Zaintzea ikastea da

Zaintza-uneen garrantzia nabarmendu dute Alfredo Hoyuelos Nafarroako Unibertsitateko irakasleak eta Txusma Azkona Lizarrako haur-eskolako irakasleak, 0-3 zikloko hezitzaileen formazio-saioan.

Hoyuelos eta Azkona pixoihalen aldaketaren garrantziaz mintzatu ziren, batetik, eta, bestetik, zaintzaz. Arreta-uneei buruz hitz egiteko, Donatella Savio hezitzailearen lanean oinarritu ziren hizlariak, Saviok arreta-dinamikei buruz idatzi baitu. Haur Hezkuntzako testuinguruetako arreta-dinamikak aztertu ditu hezitzaile italiarrak, bai eta horiek bi eta hiru urteko haurren eta zaharragoen ikaskuntzarekin eta balioa duen *nïaren* eraikuntzarekin duten lotura ere.

Hasteko, *zaintza* hitzaren esanahia argitu zuten Hoyuelosek eta Azkonak, zaintzearen eta ikasketaren arteko loturaren gaia aztertzeke beharrezko baita *zaintza* hitzaren esanahian sakontzea. Horretarako, hiru ideia nagusi hauek aurkeztu zituzten, Savioren hitzetan oinarriturik:

–Lehenik eta behin, bi urtetik hiru



urtera bitarteko haurren ideia, edo, are gehiago, zero urtetik bost urtera bitarteko haurren; oraindik hitzezkoa ez den izakia da funtsean, hau da, hitzezkoa ez den komunikazioaren aurrean bereziki sentibera da. Komunikazio mota hori ez da hitzen edukian oinarritzen, baizik eta ahotsaren tonuan eta, batez ere, gorputzean, jarretan, posturretan...

–Bigarrenik, adin horietan zaintza hezkuntzarako tresna garrantzitsua dela ulertzea, haurrek duen komuni-

kazio-tresna sentiberarenari, hau da, gorputzari, dagokiolako, gorputzari eragiten diolako, hitzezkoa ez den komunikazioari.

–Hirugarrenik, zaintzaren mezua etengabe bilakaera-prozesuan dagoen mezua izan daitekeela ulertzea, zeharkako ikaskuntza mota jakin bati dagokionez: *nïa* balioa duen *nïa* dela ikastea; ikaskuntza horri dagokionez, bi-hiru urteko adina bilakaeraren funtsezko unea da.

Horrez, gain, bi urtetik hiru urtera

bitarteko haurren –eta zaharragoen– bilakaera-premiei erantzuteko gai izan beharko duen zaintzaren inguruko mezu bat bideratzeko, hezkuntza-testuinguru batek izan beharko lituzkeen ezaugarriei buruzko hainbat gogoeta proposatu zituzten:

Zaintza hitzak barnean hartzen dituenak

Lehen gogoeta gisa, *zaintza* hitzean pixka bat sakontzea proposatzen die bere idatzietan Saviok hezitzaileei. “Italierazko hiztegi zahar bat hartzen badugu, zaintzaren definizio hau aurkituko dugu lehendabizi: ‘interes arretatsua eta iraunkorra zerbaitetan edo norbaitengan’. Lehenengo definizio horretan, gehien nabarmentzen den alderdia pertsona batek zerbaiten edo norbaiten aurrean duen jarrera psikologiko moduan ulertutako zaintza dugu. Interes aktiboa (“arretatsuak” aktibo esan nahi du hemen) eta iraunkorra duen jarrera, hau da, ez da aldizkako interesa, piztu eta itzali egiten dena, baizik eta denboran irauten duen interesa. Ondoren, zaintzaren bigarren definizio bat aurkituko dugu: ‘egiten den horretan konpromiso eta arreta handia agertzea’. Alderdi operatiboa azpimarratzen da hemen. Beraz, zaintzea zerbait egitea da; baina, adi, konpromiso eta arreta handiz lagundutako zeregina da beti. Konpromisorik eta arretarik gabe ez dago zaintzarik”.

Lehenengo bi definizio horietatik zaintza harreman bat dela ondoriozta liteke, Savioren aburuz: norbait zerbaiten edo norbaiten arduratzen da. “Lehenengo definizio horiek zaintza eskaintzen duen pertsona azpimarratzen dute, jasotzen duena baino gehiago, eta zaintza ematen duenak egiteko ardura duela eta lehen aipatu dugun jarrera psikologikoarekin egin behar duela zehazten dute. Bestela esanda, harremana gidatzen duenak jarrera psikologiko jakin bat hartuko du bere gain, interes artatsua agertzen

duena, iraunkorra, konpromisoa duena eta adeitsua”.

Hiztegi zahar hartako hirugarren definizioa ere nabarmentzen du Saviok; “definizio horrek zaintza gaixotasun bat tratatzeko sendagaien multzoa ere badela dio. Kasu horretan, ez zaio jarrera psikologikoari erreferentziarik egiten: zaintza gorputz baten gainean –sistema biologikotzat ulertuta– egiten den esku-hartze fisiko, kimiko edo biologikoarekin (senda-gaia) identifikatzen da; hau da, kasu horretan, gorputzasuna, gorputz hutsa, arimarik gabea da, hein batean”. Gorputzaren gainean egiten den esku-hartzea zaintza da kasu horretan ere, baina ikuspegi fisiko eta biologikotik, eta ez da beharrezkoa jarrera psikologiko jakin bat edukitzea, hau da, zaintza horrek ez du nahitaez interesduna, adeitsua, iraunkorra, konprometitua eta artatsua izan behar. Zaintzari buruzko hiru definizio horietatik, lehenengo biek alderdi psikologikoa azpimarratzen dute eta hirugarrenak, alderdi hori baztertzen ez duen arren, ez du azpimarratzen.

“Hiru definizioak elkarrekin hartzen baditugu, esan dezakegu posible dela *zaintzea, baina inor edo ezer zaindu gabe*, hau da, zaintzak lehenengo bi definizioetan duen alderdi psikologiko hori gabe zaintzea gorputza. Esperientzia horixe bizi dugu, adibidez, gaixotzen garenean eta gure gorputzaz arduratzen diren –zorrotasun handiz arduratu ere– sendagileak aurkitzen ditugunean, baina sendagile horiek gaixotasunarekin lotutako alderdi pertsonal eta psikologikoa kontuan izaten ez dutenean. Are gehiago, ikuspegi horretatik, gaixoareen nortasuna traba ere izan daiteke terapiarako. Nire ustez, jarrera hori sendagilearen defentsa psikologikoarekin lotuta egon daiteke”. Savioren hitzetan, despertsonalizazioa gertatzen da nolabait, sendagileak beraren eta sufrimenduaren artean tarte bat uzteko sentitzen duen behararekin lotuta egon daitekeena. “Baina beste

aldean dagoen pertsonak, gaixoak, zainketarik gabeko zainketaren esperientzia bizi du, eta etsita sentitzen da: beheratuta sentitzen da, aintzat hartzen ez dutela sentitzen du, pertsona gisa zaintzen ez dutela”.

Zaindu gabe zaintzeko aukera edo arriskuaren kontzeptua garrantzitsua da Saviorentzat, arrisku hori oso hurbil baitu haur-eskolan lan egiten duen hezitzaileak. “Ikus dezagun zergatik. Haur-eskolako garaian errutinazko une ugari daude: haurrak aldatzeko ordua, bazkari-ordua (txiki-txoenen kasuan, bazkaria emateko ordua), lo egiteko ordua. Hau da, denbora soilik haurren gorputzari eskaintzen dizkiogun uneak dira horiek guztiak. Gainera, haur-eskolako haurren gorputzak arreta handia eskatzen du. Horregatik, errutinek toki garrantzitsua dute haur-eskolaz arduratzen den pertsonaren lanaldian eta hezkuntza-gogoetetan. Behin eta berriz errepikatzen direlako esaten dugu une horiek errutinazkoak direla: egunero keinu berberak egiten dira behin eta berriz (haur-eskolako hezitzaile batek gutxienez hamar haurren pixoihalak aldatzen ditu egunean hainbat aldiz).

Hortxe dago arriskua: errepikatze horrek zaintzeko jarrera okertu dezake, hau da, gorputzaren behar fisiologikoak modu azkarrean zaintzera eraman dezake, axolagabekeriak nolabait; horregatik esaten dut zaindu gabe zaintzeko arriskua dagoela..., hau da, keinu horiek benetako interes iraunkor, arretatsu eta konprometitua erakusten duen jarrerarekin lagundu gabe. Haur-eskolan erabat kontzientente dira arrisku horretaz, eta ahots askok eskatzen dute une horiek izendatzeko errutina hitza erabiltzeari uzteko eta zaintza-jarduera izendapena erabiltzeko, zaintzaren alderdia, jarrera psikologikoa, azpimarratzeko, hain zuzen.

Eta ez hori bakarrik. Bi urtetik hiru urtera bitartean –hemen bereziki interesatzen zaigun adina–, haurren

gorputza bere kasa egiten, bere kasa elikatzen eta bere kasa garbitzen ikasten ari den gorputza da, hezkuntza-kultura garaikide jakin batek aipatutako etapen arabera. Beraz, adin horretan helduek gorputz hori bakarrik uzteko eta beste erremediorik ez dagoenean edo haurrak bere kasa egin ezin duenean soilik zaintzeko arriskua dago; gainera, nahiko modu zakarrean eta gogorrean gerta daiteke hori, eta zaindu gabeko zaintza horrek gaitzespen-mezu bat ere har dezake barnean, esplizituki edo ez: 'Bazkaria eman behar dizut oraindik! Berririo egin duzu txiza! Horrela ez zara handia egingo!'. Hori guztia haren onerako dela pentsatuta eta ustez ordurako izan beharko lukeen autonomiaren izenean.

Hala, bada, haur-eskolan zaintzarekin batera doan jarrera psikologikoa okertzeko arriskua legoke, Savioaren aburuz. "Zergatik arriskua? Arriskugarria da haurarentzat? Haurraren gorputzak hertsatuki tratatua izateko arriskua du, soilik haren behar fisiologikoak aintzat hartzeko arriskua, edo oraindik autonomia ez delako apur bat gutxietsia sentitzeko arriskua; baina gorputz hori neskato bat edo mutikotxo bat da". Hiru urte bete aurretik, haurraren gorputza ize-nik gabeko emozioz beteta dago, adierazi ezinezko fantasiak, pentsamendu-intuizioz; esanguraz bustitako gorputza da, erabat sinbolikoa. Esangura horiek eskuraezinak dira haurarentzat, eta bere gorputzean indar handiz eta modu zehatz eta kaotikoan sartzen direla sentitzen du; haurrak ez du horiek guztiak deskodetzeko tresnarik, eta helduarekiko duen harremanean ikasten du esangura horiek ulergarri bihurtzen. Savio literatura psikoanalitikoan oinarritzen da bere adierazpenari eusteko, hala nola, Klein-engan, Bion-engan, Winnicott-engan edota Fonegy-engan.

Gorputz hori hartzen, ukitzen, baztertzen den moduak, berorri begi-

ratzeko edota eusteko moduak, esanahia ematen dio gorputz horrek bere sentitzen duenari, bizi duenari, bere burua ulertzeko moduari. Hone-lar dio Savio: "Haurrak, gorputz hori den haur horrek, gorputz hori hartzeko, ukitzeko, berorri begiratzeko moduaren bidez ulertzen du bere burua. Nola hartzen den, nola ukitzen den, horren arabera ulertzen du bere burua, arretaz eta etengabeko interes artatsuz tratatzen den norbait edo zerbait den edo, aitzitik, halako arretarik, zaintzarik merezi ez duen zerbait edo norbait den, hertsatuki, modu hotzean eta bazterkeriaz har daitekeen zerbait edo norbait den. Besteen eskuek eta begiradek gorputz hura zaintzeko duten modua da bere burua azalarazteko, eraikitze borrokan ari den pertsona txikiaren forma zehazten duena. Zaindu gabe zaintzen duten eskuak edo begiradak diren, edo ezer zaintzen ez duten edota pertsona horren azalratzea eragozten edo distorsionatzen duten eskuak eta begiradak diren; edota, aitzitik, beharrezkoa den bakoitzean edota beharrezkoa ez denean ere, arreta handiz zaintzen duten eskuak eta begiradak diren, pertsona horren erabateko adierazpena sustatzen duten eta haren euskarri diren eskuak eta begiradak".

Zaindu, beraz, buruarekin eta gorputzarekin egiten da, eta bururako eta gorputzerako, Hoyuelosek eta Azkonak nabarmendu zuten. Ildo horretatik, haurrak arlo ebolutiboan arrisku bat daukala azaldu zuten, niaren eraikuntzarekin lotutako gaitetan; bere buruaz osatzen duen ideiarenguruko arrisku ebolutiboa da. Arrisku hori handiagoa da bereziki bizpahiru urte dituen haurrak nahiko fase zail eta erabakigarria bizi baitu niaren eraikuntzari begira.

Arriskuaren ideia hau argiazaltzen du Savio: "Zaintzaren esanahiaz egin ditudan gogoetek bi ideia hauei aurre egitera eraman naute: lehengo eta behin, haurra bere gorputza da, eta, beraz, nagusiki ez-hitzezko izakia

da. Bigarrenik, zaintzaren mezua, buruarekin eta gorputzarekin eta bururako eta gorputzerako egiten den zaintza horren mezua, garrantzi handiko tresna hezitzailea da haurraren gan balioa duen niaren irudi bat eraikitze".

Haurra ez-hitzezko izakia da

Haurra ez-hitzezkoa dela esatean, Savio ez soilik gorputzaren jarreraz, irribarraz, begiradaz ari; aldi berean, posturaz, ahotsaren doinuaz, arnasaren erritmoaz, etenaldiez, isilunez ari da; aitzitik, hitzen edukiek, horien esanahiek, hitzezko alderdiak adierazten dituzte. Literatura psikoanalitiko osoak haurraren deskribapena egitean, gorputzaren jokabidearen bidez, hau da, hitzekin baino gehiago gorputzarekin, bere burua, barne mundu sakon eta ezkutukoena, adierazten duen haurra deskribatzen du. Zehazki eskolaurreko adinaz ari dela, Melainie Klein-en hitzak aipatzen ditu Savio; haurrak, hitz egin ordez, egin egiten duela baitio Klein-ek beste askok bezala: "haurraren hizkuntza jolasaren hizkuntza da, eta, adin horretan, ekintzetan datza batez ere; beraz, gorputzaren hizkuntza da, gorputzarekin egiten dena".

Haurrak, sei urtera arte, bere buruaz ekintzaren ikuspegitik pentsatzen duela dioten niaren osaketari buruzko hainbat azterlan aipatzen ditu Savio, hau da, niaren gorputz-ikusmolde bat duela. "Zer esan nahi du horrek? Sei urte dituen arte haurrari 'Nor zara?' edo 'Nolakoa zara?' galde-tzen badiozu, horrelako zerbait erantzungo dizula: 'Pilotan jolasten dakit...'. 'Badakit Lego piezekin gaztelu bat egiten...'. Hau da, jolas-jokabideen bidez definituko du bere burua, eta bere buruaren irudikapena ekintzarekin eta gorputzarekin estuki lotuko du".

Funtsean, sei urtera arte, haurra batez ere bere gorputza da; bere gorputzaren bidez ulertzen du bere burua; bere gorputzaren bidez komuni-

katzen da.

Behin goikoa azaldurik, gogoetarako beste puntu bat dakar Saviok: “Piagetek gogoeta-adimenaren hasiera bi urteren inguruan kokatzen du, hau da, une horretan hautematen dena alde batera utzita buruan irudiak izaten hasteko gaitasuna adin horretan hasten dela dio. Baina bi urtetik lura bitarteko umeengan (operazio aurreko fasearen estadio aurrekontzeptuala), gogoeta-adimena oso finkatuta dago oraindik pertzepzio-alderdietan, hau da, haren zentzumenek hautematen dutenak eta, beraz, hitzezkoak ez diren testuinguruaren alderdiek gidatzen dute. Are gehiago: psikologia kognitiboaren esparruko hainbat azterlanek diote haurrak sei urte dituen arte sentiberatasun handiagoa duela ikusmen-estimuluekiko entzumen-estimuluekiko baino: kontzeptu bat ulertzeko, gehiago erabiltzen du ikusmenaren bidea hitzezko baino. Horregatik, haurrentzako liburuek irudi ugari izan ohi dituzte: helduak irakurritako narrazio-testua ulertzeko prozesatzen den estimulu nagusia ikusizkoa delako eta hitzezko estimuluaren aurrean hark duelako lehentasuna”.

Zero urtetik seira bitartean haurrak bere burua gorputzaren eta ekintzaren bidez hautematen duela azpimarratzea, horixe da Savioren ekarpena; batez ere gorputzaren bidez eta, beraz, hitzezkoak ez diren bideetatik komunikatzen dela, eta batik batik hitzezkoak ez diren komunikazioak ulertzen dituela. “Oso baliotsua zara niretzat”; zaintzarekin lotutako mezu hori uler dezan, gorputzarekin adierazi behar da, eta haurraren gorputzari zuzendu behar zaio”.

Zaintzaren mezua, eta balioa duen niaren eraikuntza

Zaintzaren mezu hori haurrak ondo ulertzea oso garrantzitsua da hezitzaileentzat. Savioren arabera,

mezu hori oinarrizko eta zeharkako ikaskuntzaren euskarri eta sustatzaile da, hau da, balioa duen ni gisa norberak bere buruaz egiten duen ikaskuntzaren euskarri eta sustatzaile. “Niaren eraikuntza zenbait etapa ebolutibotan gauzatzen da. Etapa horiek zehatz-mehatz aztertu gabe, hauxe baino ez dut ekarri nahi gogora: Margaret Mahler-ek dioenez (1978), nia, banakotasunaren sentipenaren kontzientzia primario gisa ulertuta (“gizabanakoa naiz”), bi urtetik hirura bitartean azaleratuko litzateke argiro. Bakoitzak bere burua gizabanako bereizi gisa irudikatze modu horiek prestatzen dute nortasunerako bidea, hau da, berorien bidez hartzen du norberak, helduak egiten duen antzera, bere buruaren zentzua, bere ezaugarri berezi, bakar, koherente eta iraunkorrena. Gatozen mamira. Zer faktorek eragiten dute norberak bere buruaz osatzen duen irudiaren kalitatearen gainean? Garapen psikosozialari buruzko literaturak gutxienez bi hauek direla gogorazten digu: mundu fisikorekiko interakzioan izandako bizipenen ondorioz norberak bere buruaz ematen duen iritzia, eta gainerako iritzia. Azter dezagun sakonago bigarren faktorea, zaintzaren mezuari buruzko diskurtsoari berezkoagoa zaionez. Egiatan, balioa duen niaren ideien eraikuntza besteen iritzian ere oinarritzen bada, horrexegatik da zaintzaren mezua ebolutiboa are modu indartsuagoan, haurrari ‘oso baliotsua zara’ adierazten diolako, hau da: haurrari bere buruaz oso positiboa den iritzia helarazten dio, eta, beraz, oinarrizko pieza da balioa duen niaren irudia eraikitze orduan”.

Balioa duen ni gisa norberak bere buruaz egiten duen ikaskuntza oinarrizko eta zeharkako ikaskuntza dela



dio Saviok, “eta autonomiarako gaitasuna eraikitzen duen neurrian halaxe da gutxienez. Praktikan, egiterakoan, ekimenen originaltasunean, arazoei aurre egiterakoan eta irtenbidea aurkitzerakoan edota giza harremanetan autonomia izateak, zeharka, balioa duen niaren irudikapena du sustraietan, eta berorren bidez, haurrak hauxe esaten dio bere buruari, modu asegarri eta eraginkor batean lortzeko arrazoizko itxaropena izanda: ‘Egin dezaket: neure burua proban jar dezaket, arazo honi irtenbidea aurkitzeko ahalegina egin dezaket, nire lagunekiko harremanetan konpromisoa har dezaket eta itunak egin ditzaket, gauzak esploratzen ahalegindu naiteke, piezekin gaztelu bat egiten saia naiteke, neure burua koloreen bidez adierazteko ahalegina egin dezaket...’”.

Beraz, gutxienez bi arrazoi daude haurrentzako hezkuntza-testuinguruek eta batez ere bi urtetik hirura bitarteko haurrentzakoek zaintzaren mezua –“baliotsua zara niretzat”– komunikatzea garrantzitsua dela esateko, hezitzaileen aburuz: lehenengo, adin horretako haurra une erabakigarrian dagoelako norberaren irudia eraikitzeo, baina, aldi berean, baita balioa duen nia barneratzeko bidea sustatzea oinarrizko oinarrizkoa delako ere, hezkuntza-helburu gisa haur-hezkuntzak eraiki nahi duen haur autonomia eraikitzeo.

GAZTELIZARAN PROIEKTUA

Enpresa erreal bat administrazioa eta kudeaketa ikasteko

Garbiketa-produktuen enpresa bat sortu dute Donostiako Elizaran ikastetxean, modu errealean jardunaz eta curriculumak dioenean oinarrituz egiten ikasteko. Gaztelizaran deitu diote proiektuari. Bere bidez Erdi Mailako Lanbide Heziketan, Administrazio eta Kudeaketako bigarren mailan, teoria eta azterketa oro ezabatuta, enpresa hori kudeatzen jarduten dira. Garbiketa produktuak hornitzaileei erosi eta Donostiako Alde Zaharreko ostalariei saltzen dizkiete. Ikasleek taldeka banatuta enpresako lau departamentuak kudeatzen dituzte: erosketak, biltegia, salmentak eta kontabilitatea.

1918. urtean du jatorria Donostiako Alde Zaharreko Elizaran ikastetxeak. Emakumeak lan eta gizarte mundurako ahal bezain ongi prestatzeko xedez sortu zen orduan. Gaur egun berriz, DBHko Osagarrien Gelaz gain, HLKP (Hasierako Lanbide Kualifikaziorako Programak) eta Erdi-Mailako Heziketa Zikloak eskaintzen ditu Administrazio Kudeaketaren nahiz Merkataritza Jardueren alorre-



Aitor Cerezo, Gaztelizaran proiektuaren arduraduna.

an. Horiez gain, Helduentzako Oinarrizko Prestakuntza ere badute. Aitor Cerezo bertako irakasleak azaldutako eran, azken batean, beste ikastetxetan onartuta edo ulertuta sentitzen ez diren ikasleak hartzen dituzte bertan: "Konpetentziak tarteko, ikastetxe askotan proiektuetan edo arazoetan oinarritutako irakaskuntza duten arren ardatz, oraindik ere teoria da nagusi. Gure ikasleei sistema horrek ez die balio, zerbait praktikoa bilatzen dute".

Hartara, Elizaran ikastetxeak HLKPren bidez betetzen duen funtzioak bi helburu ditu: batetik, ikasleek DBHko titulua eskuratzen dute (aurrez ikasle gehienek ez baitute izaten), eta bestetik, Lanbide Heziketa-

ko lehen koska gainditzen dute. Elizarana doazen ikasleen % 50 etorkinak direla kontuan izanik, eta sarritan ikasketak homologatzeko arazoak izaten dituztela, haien kasuan ere funtzio itzela betetzen du ikastetxeak. HLKP urte eta erdiko formazio teoriko-praktikoa izan ohi da, gero urte erdiz enpresaren batean praktikak egiten dituzte. Askok horrekin lan mundurako jauzia ematen dute. Beste batzuk berriz, Erdi Mailako Lanbide Heziketara igarotzen dira. "Horretan dagoeneko bada praktikotasunik, baina guk funtzionalitate handiagoa erantsi nahi diogu eta horretarako hainbat proiektu ditugu".

Ikasketei praktikotasuna emateko sortutako proiektu horietako bat

da Gaztelizaran egitasmoa. Ikasturte honetan jarri dute lehen aldiz mar-txan Erdi Mailako Heziketa Zikloko 2. Ikasturteko Administrazioaren eta Kudeaketaren alorreko ikasleekin. Garbiketa produktu enpresa bat sortu dute. Hornitzaileei produktuak erosi, ikastetxean bertan daukaten biltegi batean gorde, eta ondoren Alde Zaharreko ostalariei saltzen dizkiete. Xede nagusia da ikasleak enpresa erreal bateko kudeaketaz arduratzea. Beste ikastetxe hainbatetan ere bada “Enpresa gelan” izeneko irakasgai bat eta bertan administrazio kudeaketari dagozkion lan guztiak egiten dituzte modu birtualean. Elizarranen orde, haratago joan eta enpresa erreal bat sortzea erabaki dute: “Azken batean ikasteko modurik onena egiten jakitea da”, dio Cerezok. Irakaskuntzan sartu aurretik enpresa ugaritan ibilia da bera, bulegoak muntatzeaz edo lan-kudeaketa prestatzeaz arduratu ohi zen. Geroztik, irakaskuntzan hasi zelarik, Lanbide Heziketako zenbait arlotan, hastapenetik buruan izan du ikasleekin batera enpresa erreal bat sortzeko ideia, baina Elizarrana iritsi arte ezin izan du burutu.



Ez da erraza izan enpresa sortzeko prozesua. Leku askotara jo zuten informazio eta laguntza eske, baina inork ez zien prozesua nola bideratu jakiteko argibiderik eman. Eta geratu zitzairen aukera bakarria enpresa euren kabuz sortzea izan zen: “Unibertsitate mailan enpresak sortzen dituztenean ikasleak eurak izaten dira bazkide. Baina gure kasuan hori ezinezkoa zen, eta beraz, irakasleok sortu dugu enpresa. Gu gara enpresako bazkide finkoak, eta ikasleak berri, bazkide aldakorak. Hala, urtez urte enpresa mantentzeko aukera daukagu. Ikasleak ere bazkide dira, baina sartu eta irten egiten dira”. Legalki, irabazi asmorik gabeko elkartera da Gaztelizaran. Hala eta guztiz ere, jarduera ekonomikoan nahiz sozietateen gaineko zergan alta eman dute eta gainera, enpresak salerosketak egiteko aukera du. “Enpresa bat da, baina zein da guk ezagutzen ditugun ohiko en-

presekin diferentzia? Irabaziak ezin ditugula bazkideen artean banatu; enpresarentzat direla. Gainera, sozietateen gaineko zerga egin behar dugu, BEZa aurkeztu behar dugu, etab. Hortaz, guk jorratu nahi duguna lantzeko, zoragarri”.

Gaztelizaran garbiketa-produktuen enpresa kudeatuz lortu nahi da ikasleek curriculumeko ezagutza eskuratzea eta konpetentzietan gaitzea. Lau departamentu sortu dituzte –erosketak, biltegia, salmentak eta kontabilitatea– eta ikasleak taldeka banatu. Xedea da talde guztiek lau departamentuak ezagutu eta kudeatzeko aukera izatea. Departamentu bakoitzaren eremuan, paretan idatziz jarrita dituzte eremu horretako prozesuaren eta jarraitu beharreko urratsen nondik norakoak. Webgunea ere sortu dute: www.gaztelizaran.org. Edo zein bezerok Internetetik zein produktu dituzten kontsulta dezake eta eskaera egin. Erosketen eta salmenten kontrola eramateko eta kontabilitatea egiteko factusol eta contasol programak erabiltzen dituzte. Programa horiek saretik doan jaitzikoak dira, Cerezok azaldu bezala saiatzen baitira Interneten doako programa eta erremintak daudela ikasleei erakusten eta horiek erabiltzen irakasten: “Sarean doan jaitz daitezkeen oso programa erabilgarriak daudela ikusarazten ahalegintzen gara. Gure helburua da erremintak eskaintzea eta eurei jakinaraztea, adibidez, Photoshop-en anaia bat dutela Interne-



Gaztelizaran proiektuan garbiketa-produktuak gordetzeko erabili duten biltegia.

ten. Aukera asko ematen ditu sareak, eta baita enpresa baten kudeaketa edo kontabilitatea eramateko orduan ere”.

Proiektua atalez atal

Erosketak: Hornitzaileei eskaerak egin eta produktuak erosteaz arduratzen da erosketetako departamentua. Biltegiko departamentuok produktu beharra ikusten dutenean erosketetako departamentuarekin jartzen dira kontaktuan eta horiek prozesua hasten dute. Departamentu bakoitzak bere helbide elektronikoa du gaztelizaran.org domeinuaren barnean eta posta elektronikoa bidez egiten dituzte gazteek garbiketako produktuen eskaerak. Hornitzaileak produktuak ekartzen ditu albaranekin eta erosketetako departamentuko kideen egitekoa da albaraneko informazioa programa informatikoan sartzea, hala ordenagailuan inbentarioa eguneratzeko. Cerezok azal dutako eran ordea, aurten lehen urtea izanik, hornitzaile bakarrarekin lan egin dutenez, modu errealean ezin izan dituzte aurrekontu bat baino gehiago eskatu eta bat bestearekin alderatu.

Billegia: Garbiketa-produktuekin zuzenean lan egiten dutenak dira. Hornitzaileak produktuak ekartzen dituztenean, haiek ordenatu eta apaletan txukun jartzen dituzte, zerbait falta bada erosketetakoei abisatzen die-

te eta noizbehinka ordenagailuko inbentarioak dioena eta biltegiaren dagoena bat ote datozen begiratzen dute. Horrez gain, eurak dira bezeroari produktuak eramaten dizkietenak ere, hau da, Donostiako Alde Zaharreko ostalaritza sektoreko establezimenduekin zuzenean harremana dute.

Salmentak: Bezeroen eskaerak departamentu honetako posta elektronikora iristen dira eta arlo honetako kideen egitekoa da eskaera horiek kudeatu eta produktuak bezeroarengaino irits daitezen bidea irekitzea. Erosketa departamentuak bezala, salmentakoak ere eskaera hori ordenagailuko programan sartzen du eta albarana prestatzen dute biltegiko departamentukoentzat, haiek baitira produktuak prestatuko dituztenak. Biltegiok berriz, albaran hori bera, bezeroaren firmarekin itzultzen diete salmenta departamentukoei, hala hauek faktura atera eta erreziboa egin dezaten: “Aurten gure kobratzeko modua errezibo bidezkoa izan da, hau da, eskura. Prozesua zein den ikusteko eskuarekin egiten den guztia errealagoa eta errazagoa da. Eskuz egiten ikasten badute, gero prozesu hori bera Internetez egitea errazago egongo zaie”.

Kontabilitatea: Salmenta departamentuok egindako errezibok hartu eta kobrantzak egiten dituzte. Dirua eskuan jasotako kasuetan, diru-mordoxka pilatutakoan, euren

egitekoa da bankura joan eta diru hori kontu korrontean sartzea. Era berean, banka online-en bidez zenbait ordainketa ere egiten dituzte: “Ikasle hauek lehen urtean kontabilitateko irakasgaia daukate. Beraz, Gaztelizaran enpresako kontabilitatea eramanez, teorian ikasitakoa praktikan jartzeko aukera paregabea daukate”.

Balorazioa eta aurrera begirakoa

Kurtsoaren amaieran, ikasleek departamentu bakoitzeko txostenik garrantzitsuenak atera eta enpresa zein egoeratan dagoen aztertu behar izan dute. Hau da, enpresaren egoeraren balorazioa egin dute. Hala ere, proiektuak ez die eman *curriculum*-ean jasotako guzti-guztia lantzeko paradarik: “Gaztelizaranen adibidez, ez dago nominarik, ez dago alta edo bajaranik”. Hortaz, alor hori modu hipotetikoan lantzen dute.

Proiektuan zehar, gainera, ikasleek eurek bi alditan elkartzeko beharra ikusi dute eta irakaslearentzat hori klabea izan da: “Enpresak ez zuela funtzionatzen ikusi zuten. Elkartzeko beharra erakutsi zuten eta urgentziazko bilera bat egin genuen”. Proiektuak arlo pertsonala, interpersonala nahiz emozioen mundukoa lantzeko ere aukera eman diela gaineratzen du Cerezok. Lehen bileraren ondotik enpresaren kudeaketaren eta funtzionamenduaren inguruko hainbat gauza aldatu zituzten, eta bigarren bileraren ondotik beste batzuk: “Modu horretan jarrerak, prozedurak, kontzeptuak ari dira barneratzen. Oraindik falta da bidea egitea, baina hasiera behintzat oso polita izan da. Guretzat hastapena oso aberasgarria izan da, eta espero dut ondo funtzionatzen badugu eta bezeroak mantentzen baditugu aurrera egitea eta hobetzen joatea”.

Zuzenean administrazioa eta kudeaketarekin loturik ez dauden beste hainbat alor lantzeko ere balio izan die Gaztelizaran proiektuak. Izan ere,





Ikasketei praktikotasuna ematen saiatzen dira Elizaran ikastetxean.

ikasturtean zehar marketin plan bat edota katalogo bat egiteko ere eskatu diete ikasleei: “Adibidez Gabonetan bakoitzari eskaintza bat prestatzeko esan genien. Gero, denon artean egokiena zein zen erabaki genuen eta hura bidali genien bezeroei”. Horrez gain, kulturartekotasuna lantzeko ere proiektua aproposa izan dela nabar-

mentzen du Cerezok. Izan ere, ikastetxean etorkin asko daude eta Gaztelizaranen bidez, horiek guztiak Donostiako Alde Zaharreko jendearekin jarri dira harremanean: “Jendeak zer ikusten du? Etorkin gazte horiek prestatzen, lanean ari direla, eta nik uste dut horrek jende askoren ikuspegia aldatzen duela”.

Gaztelizaran proiektuaren arduradunak adierazitako moduan, garbiketa-produktuen enpresa kudeatuz, gazteek curriculumean jasotako ia dena ikasi ahal izan dute: zer den faktura bat, zer den albarana, zer den eskaera bat, nola artxibatu, harremanak hornitzaile eta bezeroekin, kontabilitatea nola eraman... eta hori guztia modu erreal eta praktikoa. “Curriculumeko helburu guztiak ez, baina asko bete ditugu proiektu honekin”. Uneotan, ia proiektua amaituta –2. mailako ikasleak ikasturtearen 2. erdian kanpoko enpresetan praktikak egiten baitituzte–, zer bete duten eta zer utzi duten bete gabe aztertzen ari dira. Izan ere, hasi besterik ez dira egin eta aurrera begira ere proiektuarekin jarraitzeko asmoa dute: “Hurrengo urteetan beste ikasturteetara zabaldu nahi dugu. Merkataritza arloa ere badaukagunez, zergatik ez adibidez, denda bat jarri biltegiaren alboan? Ideiak dira, baina, nire ustez, praktikotasun hori bilatzea oso garrantzitsua da”.

Uda Ikastaroak - XXXIII - Cursos de Verano
Europar Ikastaroak - XXVI - Cursos Europeos



ZIENTZIA-HEZKUNTZAREN ERRONKAK: Europa hurbilpena eta tokiko eredia elkargunea

Helburuak

- ✓ Europar arazo estrategiarik berrak. Europar larbortzeak zientzia hezikuntzaren arloan arduratuko diren arazoak argitzea.
- ✓ Europa arazo estrategiarik berrak. Euskal Herriko zientzia hezikuntzaren arloan arazoak argitzea.
- ✓ Europako zientzia hezikuntzaren erabilerari tokiko tokiko irakasleak zuzentzeko pentsatzen diren irratien argitzea.
- ✓ Zientzia hezikuntzari buruzko eredu berriak garatzea.
- ✓ Proiektu irabazgaririk ez dutenak, baina eredu berriak garatzea.
- ✓ Inerzio-eremuak argitzea, pentsatze ereduak eta ezberdintasunak argitzea.
- ✓ Inerzio-eremuak argitzea, pentsatze ereduak eta ezberdintasunak argitzea.
- ✓ Inerzio-eremuak argitzea, pentsatze ereduak eta ezberdintasunak argitzea.

Matritikoa eskaria

Erakundeak zientzia hezikuntzaren arloan arduratuko diren arazoak argitzea.

Argibideak eta izen-ematea

Erakundeak zientzia hezikuntzaren arloan arduratuko diren arazoak argitzea.

DATA 2014/15

Inbentarioa buruzkoa

1000eur

Zientzia-hezikuntza zer den eta zientzia hezikuntzaren erabilerari buruzko proiektuak argitzea.

1000eur

Erakundeak zientzia hezikuntzaren arloan arduratuko diren arazoak argitzea.

1000eur

Erakundeak zientzia hezikuntzaren arloan arduratuko diren arazoak argitzea.

1000eur

DATA 2015/16

Zientzia hezikuntzaren erabilerari buruzko proiektuak argitzea.

1000eur

Erakundeak zientzia hezikuntzaren arloan arduratuko diren arazoak argitzea.

1000eur

Erakundeak zientzia hezikuntzaren arloan arduratuko diren arazoak argitzea.

1000eur



GeoGebra eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza

Aitzol LASA

NUP-EKO MATEMATIKA SAILEKO IRAKASLEA

Miguel R. WILHELMI

NUP-EKO MATEMATIKA SAILEKO IRAKASLEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduetako matematikaren didaktikako irakasgaietan, GeoGebra softwareak Cabri II Plus ordezkatu zuen 2008/2009 ikasturtean.

Ordezkatze hori bi arrazoi sortak motibatu zuten: pragmatikoak alde batetik, eta epistemologikoak eta irakaskuntzari loturikoek bestetik.

Arazoi pragmatikoen artean daude, esate baterako, software libre izatea, eta, ondorioz, hura erabiltzeko ez dela lizentziarik ordaindu behar. Gainera, euskaraz erabil daiteke, itzulpena guk geuk kudeatzen dugulako. Gainera, teknikoki erabilgarria, atsegina eta intuitiboa da.

Beste arrazoi batzuk epistemologikoak dira eta irakaskuntzari loturikoak. Matematikaren edukiak elkarrekin erlazionaturik daude eta GeoGebrak dituen tresnak baliatuz posible da geometria, aljebra eta funtzioen teoriako nozioak, prozesuak eta esanahiak modu integratuan garatzea. Horrez gainera, azken bertsioe-

tan pakete estatistikoak sartu dituzte, eta horrek softwarearen moldaerraztasuna lagundu du.

Hori guztia dela eta, pixkanaka bada ere, softwarearen erabilera hedatzen ari da Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, nahiz eta momentuz softwarearen eragina eskasa den Euskal Herriko ikastetxeetan. Hedatzea bultzatzeko ahaleginean ari direnen artean, aipatu behar dira, alde batetik, Nafarroako irakasleen prestakuntzarako ILZ zentroak, eta, bestetik, Udako Euskal Unibertsitatea, azken honek kudeatzen baititu prestakuntza ikastaroak, bai bere eskaintza propioaren barruan, baita GARA-TU programaren barruan ere. Horri esker, irakasleriaren gaitasun digitala hobetzeko jarduera konkretuak egiten dira. Azkenik, Lekuko GeoGebra Insituetuek antolatzen dituzte prestakuntza ikastaro horien osagarri diren jarduerak: eztabaida foroak (GeoGebra-wikia), aurrez aurreko mintegi eta jardunaldiak eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko sariketak (www.geogebra.org).

Artikulu hau argitaratu den unean, Euskal Herriko GeoGebra Institutua sortu berri da, International GeoGebra Institut erakundearen tokiko elkarte. Institutu honen helburuen artean dago, hain zuzen ere, softwarearen itzulpena kudeatzea, matematikaren irakaskuntzarako

materialen biltegi bat sortzea eta irakasleen etengabeko prestakuntza jarduerekin aurrera jarraitzea.

Testuinguru horretan eta 2010/2011 ikasturtean, egoki ikusi zen GeoGebra erabiltzen hastea Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Masterrean. Irakasle Graduetako ikasleek ez bezala, Masterreko ikasleek euren jatorrizko titulazio zientifiko eta teknikoetan ikasi dituzte erabiltzen GeoGebra bera baino zorrotzagoak diren matematika-softwareak. Honenbestez, Bigarren Hezkuntzako irakasle-gaiak trebatu nahi dira softwarearen oinarrizko erabileran, gai izan daitezen GeoGebrarekin egindako eraikuntza dinamikoak eta matematikaren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak baloratu, erabili eta baita modu autonomo batean diseinatzeko ere.

Masterreko matematika berezitasunean, zeregin gisa, ikasleek analisi matematikoaren baitako gai bat garatu behar dute. Teoremak frogatu behar dituzte, problemak ebatzi eta gaiaren ahozko aurkezpena egin behar dute. GeoGebra erabili da, arbela digitalarekin batera, garapen matematiko horren osagarri gisa, Bigarren Hezkuntzako curriculumaren baitakoak diren emaitzak bistaratzeko.


Gardentasunaren ilusioa

Analisi matematikoko edukiak ilustratzeko ohiko arbela erabiliz ge-

ro, saio bakoitzean funtzioen adierazpen grafiko bat edo adierazpen gutxi batzuk besterik ezin dira aurkeztu. Adibide horiek fenomeno didaktiko bat eragin dezakete, hau da, gardentasunaren ilusioa sor dezakete. Nola lagun dezake GeoGebrak fenomeno hori gainditzeko? Bestela esanda, adibide bat bi eratara interpreta daiteke, “objektu isolatu” gisa eta “klase baten ordezkari gisa”, eta, galdera da GeoGebrak bi interpretazio horien arteko distantzia murrizten lagunduko ote duen.

Hain zuzen ere, lan honetan azalduko dugu GeoGebrak aukera ematen duela jakintzaren eraikuntzan eta komunikazioan aurrera egiten, eta laguntzen duela gardentasunaren ilusioa gainditzeko. Argudioa babes-teko, hainbat jatorritako adibideak aurkeztuko ditugu: batzuk klasikoak dira, esate baterako, zuzen ukitzailaren eta deribatuaren ebazpenean kalkulu infinitesimalak duen garrantzia; beste batzuk oinarrizkoak dira, hala nola, deribatuaren nozioa bera; azkenak Bigarren Hezkuntzako curriculumetik hartu dira, hala nola, kalkulu diferentzialeko eta integraleko zenbait teorema.

Gardentasunaren ilusioa: fenomeno honen arabera, irakasleak adibidea eredu gisa interpretatzen du, hau da, klase baten ordezkari gisa, ikasleak adibidea besterik ikusten ez duen bitartean. Matematikaren eraikuntza eta komunikazioaz ari garela, fenomeno horrek erakusten du badagoela distantzia bat ezagutza zientifikoaren eta eskola-instituzioan kristalizaturiko eta etiketaturiko ezagutzaren artean. Horregatik, ezinbestekoa da irakasleek eta ikasleek “hizkuntza bera erabiltzea” eta horretarako bitartekoak aurkitzea.



1 irudia. Nikomedesen konkoidaren eredu dinamikoak

Eraitza klasikoak: Nikomedesen Konkoida

Historikoki, Newtonen eta Leibnizen kalkulu infinitesimalaren aurretik, kurba baten zuzen ukitzailak metodo geometrikoen bidez aztertzen ziren. Nikomedesen Konkoida, maskor-itxurako kurba, GeoGebraren bidez adieraz daiteke leku geometriko gisa (1 irudia, <http://www.geogebra.org/student/m103751>).


Konkoidak bi parametro dituzenez, ez da kurba bakar bat; aitzitik, kurben familia da. GeoGebraren bidez familiako edozein konkoida adieraz daiteke. Ez da adibidea: eraikuntza dinamikoak konkoiden familia guztia hartzen du, *eredu dinamiko* bat da. Behin konkoida adierazi ostean, arbel digitalean haren irudi bat hartuz, kurba parametrizatu egin daiteke (jatorri gisa hartzen da G puntua), eta, azkenik, kalkulu infini-

tesimalaren bidez hura aztertu (2 irudia).


Oinarrizko nozioa: deribatua

Oinarrizko nozioak, esate baterako deribatua, nola azter daitezkeen erakusteko, parabola erabiliko dugu. Izan ere, kurben familia hori aski ezaguna da Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean. Beste behin ere, eredu dinamikoaren bidez manipulatuko dira parabola definitzen duten hiru parametroak, familiako edozein parabola irudikatzen. Gainera, eraikuntzaren bidez, aldiuneko aldakuntza-tasa interpreta daiteke A eta B bi puntuen arteko batez besteko aldakuntza-tasaren kasu partikular gisa, puntu horiek elkarren nahi bezain hurbil daudenean.

Horrela, A eta B infinituki gertu daudenean, eraikuntzak zuzen ukitzaila erakutsiko du (2 irudia, <http://www.geogebra.org/student/m103888>).



2 irudia. Parametrizazioa arbel digitalaren gainean



Parabolaren eredu dinamikoa eta BAT

Bigarren Hezkuntzako zenbait teorema

Erakutsiko ditugun azken erai-kuntzak Batxilergoko curriculumetik atera ditugu. Horiek dira, Bolzanoren Teorema (<http://www.geogebra.org/student/m103939>), Roleren Teorema (<http://www.geogebra.org/student/m103945>) eta Batez Besteko Balioaren Teorema (<http://www.geogebra.org/student/m103943>).

Eraikuntza horiek “erronka” gisa aurkezten zaizkie ikasleei. Agindua zera da: ikasleek aurkitu behar dute teorema beteko ez den kontradibide bat. Hori, noski, ezinezkoa da. Eraikuntzetako bakoitza hari dagokion teorema betetzeko diseinatu da, eta, ondorioz, ikasleek ezingo dute euren helburua bete, hau da, ezingo dute aurkitu eraikuntzaren antolaketa bat non emaitza orokorra beteko ez den. Eraikuntzan 4. mailako funtzio polinomikoen familia adierazi den arren, aukera posibleak horrenbeste dira non kontratu didaktikoa hautsiko dela ziurra den, hau da, ikasleek egiaztatuko dute zereginak “ez duela soluziorik” eta irakaslearen parte-hartzea eskatuko dute. Hori izango da Teoremak formalki aurkezteko mementoa.

Ondorio gisa


Bigarren Hezkuntza amaitzean, ikasleek izan behar dituzten oinarriko gaitasunen artean daude matematika-gaitasuna eta gaitasun digitala. Masterrean egindako lan horren bidez, irakaslegaiak euren irakaslerako beharrezkoak diren tresnak eta ezagutzak bereganatu behar dituzte.

Lehen Hezkuntzako irakasleen prestakuntzan, oro har, softwareen erabilera errefusatu egiten da, eta unibertsitateko irakasleak errefus horri aurre egin behar izaten dio Gradu ikasketetan. Zorionez, Bigarren Hezkuntzako Irakasle Masterre-

an ez da horrelakorik gertatzen. Matematikako alorrean sartzeko, ikasleei jatorrizko prestakuntza zientifikoa edo teknikoa galdegiten zaie, eta ikasketa horietako programazioetan agertzen dira kalkulurako eta estatistikarako softwareak, edota programazio-lengoaiak erabiltzen dituzte huts-hutsean. Ikasleria mota horrek softwarea erabili egiten du, besterik gabe, inolako aurre-trebakuntzaren premiarik gabe, ohitura baitu eskuliburuak eta laguntza informatikoa modu autonomoan erabiltzen.

Aldiz, beste gisa bateko beharrak sortzen dira. Besteak beste, irakasle-gaien ezagutza matematikoetan sakondu egin behar da, eta tresna informatikoen erabilera zuzena ziurtatu egin behar da, hau da, erabaki egin behar da zer egoeratan eta egoeraren zein mementotan komeni den geometria dinamikoko softwarea erabiltzea.

Funtsean, egoera horiek hiru multzo handitan banatzen dira: emandako propietate matematiko bat egia ote den erabakitzeko esplorazio mementoa; emaitza teoriko baten ilustrazioa egiteko mementoa; eta, azkenik, emaitza teoriko bat frogatzeko mementoa. Lan honetan aurkezturiko adibide guztiak bigarren multzokoak dira.



Batez Besteko Balioaren Teorema

zientzia galdetu.ikertu.lortu

azoka

elhuyar da

2013-2014

Ikertzaile gazteen Euskal Herriko
zientzia-azoka

EGUNA: maiatzak 24 (arunbata)

ORDUA: 10:30etik-14:00etara.

LEKUA: Plaza Barria, Bilbo

PARTE HARTZAILEAK:

Lauro Ikastola, San Benito Ikastola,
Zangozako Ikastola, Hernani BHI,
Begoñazpi Ikastola, Arizmendi
Ikastola, Gurutzeta BHI, R.M. Azkue
Ikastola, Hirukide,
Amor Misericordioso Ikastetxea,
Egibide, Elorrio BHI, La Anunciata,
Ibaizabal Ikastola, Aralar BHI,
Axular Lizena, Amazabal BHI,
Iturrana BHI,
Karmengo Ama Ikastetxea,
Lauaxeta Ikastola, Uzturpe Ikastola

Ez galdu Euskal Herriko ikertzaile
gazteenak ezagutzeko aukera!

Zientzia Azoka ekimena gazteek
gratuako proiektuen azoka da.
Erokan helde dituen gazteak,
ikasturtean zehar, bildeka, hales,
erabaki duten golaran inguruan aritu
dira lanean, galdetzen, ikertzen,
diskutatzen, erakitzen, eta
esperimentu berriak bizitzen. Lanaren
emaitza ikerketa-proiektu bat hainla
proiektu teknologiko bat izango da,
eta, lanak erakusteko stand bera
izango dute Zientzia Azokan.

Antolatzailea:

elhuyar
Zientzia

Babesleak:



Obra Social 'La Caixa'



FECYT

Kolaboratzaileak:



upna
Universidad del País Vasco

Deusto
Universidad de Deusto

MINDIAGACH
MINDIAGACH

tecnalia
tecnalia

IK4
IK4

BTEK
BTEK

Laguntzaileak:

Donostiako Aquariuma, Gasteizulo,
Gipuzkoako parkeak, Karpin Abertura,
Skunkfunk, Sobrón Aventura, Rocopolis,

Kontaktua:

zientzia-azoka.elhuyar.org
zientzia-azoka@elhuyar.com
@zientziahezk - 943 36 30 40



Zer baliabide ditu irakasleak beste kultura batzuetako familiengana gerturatzeko



Kultura-aniztasuna hezkuntzan

Abiapuntu gisa eta ezertan hasi aurretik, komenigarria iruditzen zait hainbat puntu argitzea, ondorengo lerroetan azalduko dudanaren oinarri eta abiapuntu direnez. Kultura-aniztasunaz eta hezkuntzaz ari garenean, ez dago esan beharrik gai zabala bezain konplexua dela. Egun bizi dugun garaian, gure erronka gaiari heldu eta gutxieneko hausnarketa bat egitea da. Izan ere, beste gai asko bezalaxe, bi kontzeptu edo elementu hauek, aniztasuna eta hezkuntza, batetik, gai dinamikoak eta aldakorak dira; bestetik, berriz, faktore, eragile eta baldintza ugarik hartzen dute parte. Azkenik, ezinbestekoa da egungo eta etorkizuneko hezkuntza-eredu egonkorra, parte-hartzailea, inklusiboa, lankidetzan oinarritutakoa eta berdintasunezkoa sortzeko nahiz haurrak errespetuan eta aniztasun-balioetan hezteko. Horregatik, zaila da kudeaketatik eta erronkatik etekinik onena ateratzeko errezeta magiko, zehatz eta pertsonalizatua eskaintzea.

Halere, kultura-aniztasunaren eta migrazioaren alorretan hainbat eskar-



Samira GODDI

KULTUR ANIZTASUNEAN ADITUA

mentu eta bizipen igaro ostean, nire asmoa ondorengo lerroetan diagnosirako gutxiengo erremintak edota elementuak eskaintzea da, egunerokoan “plazan” aritzen zaretenoi ekarpen xume bat eskaintzea. Izan ere, lehen eta azken erronka eta helburua ikastetxeetan duzue, ikastetxeetan izaten eta gautzen baitira haurren, familien, irakasleen eta beste askoren arteko sozializazio-harremanak. Halere, ez da soilik erakunde horren eskumena eta ardura gaiari behar bezala heltzea eta sortzen

diren behar edota gatazkei erantzuteko ekintzak gauzatzea. Egia da garrantzitsua dela ikastetxea aniztasunaren aldeko ekintzak gauzatzeko nahiz inklusiorako bidea emateko gune ideala dela ohartzea. Alegia, ezinbestekoa da gaitasun eta aukera horretaz kontzientzia hartzea, baina, noski, hori bideratzeko, behar-beharrezkoak dira erreminta eta baliabide osagarriak nahiz, zenbaitetan, zentralak. Beste alor askotan bezalaxe, erronkei eta helburuei behar bezala erantzuteko baldintzak eman eta eskaini behar dira, eta modu esplizituan, gainera, kontua ez baita soilik aukera izatea. Haurren aniztasuna kudeatzeko, eremu aparta da ikastetxea. Izan ere, aniztasunak berdintasuna behar du; behar-beharrezkoak ditu elementu komun partekatuak, kohesioa edota batasuna bilatzeko eta lortzeko: totem bat. Beraz, abian jartzeko, egungo gure herri eta hirietako ikastetxe gehienek jada bermatuta dituzte bi osagai horiek.

Zertaz ari gara aniztasunaz ari garenean? Lehenik eta behin, iruditzen zait galdera hori argitu beharreko kontzeptua dela, gainetik bada ere. Betidanik

izan dugu aniztasuna gure familietan, herrietan, auzoetan edota ikastetxeetan. Guk geuk ere geurea dugu aniztasuna. “Zenbat buru hainbat aburu” dioten esaldi bat ere badugu euskaraz, gustu eta ideien aniztasunari erreferentzia egiten dion atsoitza. Euskal Herriatik bertatik hainbat zibilizazio igaro dira, eta euskaldunak ere bidaiariak izan dira; eta, beraz, urruneko lurak dibertsifikatu ditugu. Horregatik, garrantzitsua da azpimarratzea egun dugun kultur-aniztasuna eta, beraz, irudikatzen den mosaiko koloretsua, kontrastez jositakoa eta heterogeneoa, ez dela guztiz berria; askotariko piezak eta tonu ugariak osagaiak izan ditu. Hori horrela, ikastetxeek bestelako erronkak zituzten garai batean, edo inklusiorako bestelako aniztasunei erreparatzen zieten, edota bestelako aniztasunez arduratzen ziren. Azken urteotako migrazio-mugimenduek jatorri-aniztasuna areagotu eta kopuruz handitu dute, eta munduan dauden kulturen ordezkariak ekarri dituzte gurera.

Ikastetxeen harreraren garrantzia

Datorren tokitik datorrela ere, haurra ikastetxera iritsi bezain laster, sarre-

ra eta harrera samurra eskaini behar zaizkie bai haur horri berari eta bai haren familiari. Hori behar bezala prestatzeko, garrantzitsua da hainbat alderdi aldeztatik jakitea, arestian aipatutako egoeraren diagnosi egokia egin ahal izateko. Alderdi horiei alderdi psikosozial deituko diegu; eta egoki gertatuko zaigu, ezaugarri pertsonalez edo idiosinkrasikoez gain (hauetariko asko haurra ezagutu ahala jakingo ditugu), alderdi kulturalak eta testuingurukoak ere aurrez zein izan daitezkeen jakitea, hainbat gatazka saihesteko eta zenbait baliabide abian jartzeko. Era berean, komeni da argi adieraztea horiek ez direla aurreiritzi gisa formulatu behar edota ez dugula orokortasunetik abiatu behar. Alegia, aurrez egoera hipotetiko batzuen gainean oihartzak ez du esan nahi jatorri zehatz baten gaineko “X” egoera edota ezaugarri gertatu behar direnik aldiro. Bestela esanda, hezurdura posibleak zein diren jakitea da honako zerrenda honetan ageri diren alderdien asmoa:

- Familiaren migrazioaren arrazoiak zein izan diren: familiarrak, politikoak, sozioekonomikoak, gerrekin lotutakoak...

Datorren tokitik datorrela ere, haurra ikastetxera iritsi bezain laster, sarrera eta harrera samurra eskaini behar zaizkie bai haur horri berari eta bai haren familiari. Hori behar bezala prestatzeko, garrantzitsua da hainbat alderdi aldeztatik jakitea



- Haurra familia batzeko xedez iritsi den: zer ibilbide egin duen gurera iritsi haurretik, eskolatua izan den ala ez, hizkuntzen ezagutza(k) eta erabilera-esparrua(k), jatorrizko herrialdean no-ren zaintzapean egon den, zer senide eta harreman utzi dituen jatorrizko herrialdean, zer aldaketa izan dituen familiak harrera-gizartean haurra kanpoan



Nabarmentzekoak dira, eta kontuan hartu

beharrekoak,
edozein
migrazio-
prozesuk
dakartzan



doluak, haurren migrazio-poiektua, oro har, inposaturikoa izaten baita eta jendarte-eredu berrira egokitu beharko baitu

zegoen bitartean (senide berriak...). Bestalde, nabarmentzekoak dira, eta kontuan hartu beharrekoak, edozein migrazio-prozesuk dakartzan doluak (Ulisesen sindromea deiturikoa), haurren migrazio-proiektua, oro har, inposaturikoa izaten baita eta jendarte-eredu berrira egokitu beharko baitu.

Beharrezkoa da aurrekari horien gainean hausnartzea eta baliabideak prest izatea eta eskaintzea. Ez dira denak ikastetxearen esku egongo; izan ere, familiaren baitan eta honek gizarteko bestelako eragileekin duen harremanaren, zerbitzuen eta baliabideen baitan egongo dira maiz. Garrantzitsua da, ordea, ikastetxeak horien gaineko ezagutza izatea eta esku hartzeko beharrezkoa den koordinazioa ziurtatzea. Horra hor ikastetxea inguratzen duen komunitatearekin harremana izateak duen garrantzia: etengabeko komunikazioa izan behar du bai haurrekin eta bai bere familiarekin. Hortaz, hasiera batean, bestelako jatorrietatik datozen haurren kasuan behar bezalako harrera eta ongietorria egiteko, beste hainbat espezifikotasun ere kontuan hartu behar dira, edozein haurrek izan dezakeen lehen uneko beldurraz, moldaketarako epearen beharraz edota ziurgabetasunaz gain.

Ikastetxearen erronkak eta aukerak

Aurreko alderdiak aurreikusteko, hautemateko eta horiei erantzunak emateko halako “zoom” edota begirada zehatz bat beharrezkoa den bezala, aniztasunean hezteko, orokortasunaren planoan izan behar dugu buruan. Alegia, alderdi eta aniztasun oro ikasle guztientzat ikasteko aukera bilakatzea da inklusioa. Ez dago etiketarik; hortaz, ez dago etorkinaren edo iritsi berriaren kategoria zehatzik. Aitzitik, kontuan hartu beharko dute irakasleak nahiz ikastetxeak horien inguruan erantzun eta prozesu egokia eskaintzeko baliabideetan behar horiek hor dituela. Ikastetxeak zubiak eraiki beharko ditu –zubiak pluralean– ikasleek era espezifikoetan agertzen dituzten behar berezietara, eta horren baitan moldatu beharko ditu metodologiak, edukiak eta ekintzak. Helburua bat eta bakarra da, edozein izanik ere haurren egoera, beharra, ahulezia: guztien arrakasta bermatzea, eta horietatik balioetan hezitako herritarrak bilakatzea. Oinarrian, hauxe hartuko da premisatzat: aniztasunak aberastasuna eskaintzen dio ikastetxeari, eta, beraz, zenbat eta aniztasun handiagoa, orduan eta hobel!

Hizkiz eta paperaren gainean adieraztea erraz samarra da; hau da, egoera idilikoranzko bidean asmo onak aitor-tzea lan erraza da. Ikastetxeetako eguneroko dinamikek, erritmoek, baldintzek eta maiz izaten diren gabeziek, ordea, muga ugari sortzen dituzte. Beste gai askotan bezalaxe, honetan ere inbertsioaren eta prebentzioaren kontzeptuak izan behar ditugu gogoan. Ezinbestekoa da ekintzak gertatu ahala erreakzionatzea, eta ikastetxeetako langileek malgutasun hori ezinbesteko gaitasun izan behar dute eguneroko dinamiketan. Bestalde, badira hainbat faktore komun, aurrez ibilbide-orria prestatzen joateko. Hala, hasieran formula zehatzik ez dagoela adierazi dudan arren, aurrea har daiteke, bai kultura-aniztasuna lantzeko eta bai erantzun positiboa eskaintzeko moduetan. Batetik, harrera-planaren garrantzia azpimarratu behar da; nola edo hala, protokoloa sortu behar da, ikasle iritsi berriaren sarrera sistematizatu; eta, hori be-

har bezala egiteko, eskura jarri behar dira beharrezkoak izango diren tresnak. Ez dugu, ordea, era inprobisatu eta aldakorrean eta petatxuak josiz bezala jardun behar. Horretaz gain, bada bestelako ezaugarri bat, bai ikasteko garaian eta bai gizarterako kohesioa sortzeko garaian erabakigarria izango dena: hain zuzen ere, gurean euskarak duen garrantzia, horrek ahalbidetuko baitie guztiei aukera berdinak izatea, edozein esparrutan parte hartzeko orduan.

Hori egin ahal izateko, ezinbestekoa da haurrak dakarren nortasun linguistikotik zubia eraikitzea; izan ere, dakarren hizkuntzak dakarren jatorriari egiten dio erreferentzia (familiar, harremani, bizipenei, oroitzapenei...), eta, horregatik, hizkuntza hori ongi eta egoki tratatzeak eta ezagutu eta aitor-tzeak baldintzatuko du bigarren hizkuntza ikasteko eraiki nahi den zubiaren sendotasuna.

Baliabide eta tresnak:

-Francesc Carbonell. *La acogida. Acompañamiento del alumnado recién llegado.*

-Carles Oller eta Eva Colomé (2010). *Alumnado de otras culturas. Acogida y escolarización.* Graó. Bartzelona


-Ima Ortega (2004). *Ikasle etorkinentzat barrera plana egiteko orientabideak.* Eusko Jaularitzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz

-David Lasagabaster. *La acogida del alumnado inmigrante en Canadá: el caso de la ciudad de Toronto*

<http://www.redalyc.org/pdf/274/27411341011.pdf>

-Kulturarteko ikastetxeen sarea:
<http://www.escuelasinterculturales.eu/spip.php?article140>

argitalpenak



Sagutxo margotxo
Stéphane Millerou /
Quiterie Laborde

IKAS

Auzoen arrabotsaz unaturik, Margotxo sagutxoak beste bizileku bat xerkatzen du. Baina bidean gurutzatzen dituen animaliek ezin dute aterpetu, salbu batek. Margolari garaikide famatuaren obra zenbaiten ezagutzeko parada ematen du liburuak. Bere gidaliburua ere badu. •



Eskola egun magiko bat
Knister / Birgit Rieger

BRUÑO

Lehen aldiz eskolara joango da Kikaren neba txikia, eta Kika supersorginak haren lehenengo eskola eguna zinez magikoa izatea nahi du. Hala izan dadin, sorginkeria liburuak hartu eta hainbat konjuru aukeratu ditu: tamaina aldatzeko konjuruak, itxura aldatzekoak, zapoak aldatzekoak, eta beste hamaika. •



Diamanteen lapurretaren kasua
Joachim Friedrich /
Mikel Valverde

GILTZA

Iragarkia filmatzekotan da Xar-mant, eta pozez dago. Hautatzeko probak egiteko zain dagoela, Madeleine ikusi du, garai bateko maitea. Primeran doa dena, iragarkia grabatu behar duen txakurra desagertzen den arte. Txarli & Company detektibe agentzia lanean jartzeko ordua da! •



Heroi bat sortu da
Maeve Friel /
Joelle Dreidemy

DESCLEE

Tiger Lilyren abenturak kontatzen dituen bildumako liburu bat da. Tiger Lily liburuzale amorratua da, eta hainbeste irakurtzearen ondorioz, abenturez eta amets bezalako burua. Buruan bueltaka dituen amets horietako batzuk egia bihurtzen saiatzen da batzuetan. •



Katalin eta Maialen
Liesbet Slegers

IBAIZABAL

Katalini izugarri gustatzen zaizkio animaliak: handiak zein txikiak; etxean bizi direnak eta baserrikoak... Haiei begira eta haiekin jolasten igaroko luke eguna. Inguruan eta urrunean dauden animaliak bildu eta liburu honetan aurkezten ditu, jolasen eta era askotako jardueren bidez animaliak hobeto ezagutzeko. •



Dinosauroen lurraldea
Elisabeth de Lambilly /
Rémi Saillard

ELKAR

Dinosauroei buruzko jakin-mina asetzeko liburu aproposa da. Nor dira? Nola bizi ziren? Zergatik desagertu ziren? Hemendik aurrera, diplodocus ikaragarriak, allosaurus beldurgarriak eta beste dinosauro guztiak ez dute sekreturik izango liburu hau irakurtzen dutenentzat. •

hik hasi-ren proposamena

BAZTAN ABENTURA PARK

Muturreko esperientziak, segurtasun osoz

Baztango ingurune ederrean, Beartzunen, Baztan Abentura Park-en lehen azpiegiturak zabaldu dituzte, soka-zubi erraldoiak, behar bereziak dituzten pertsonentzako egokituriko penduluak... eta askoz gehiago

Bizi, esperientziak bizi, sentitu, norberaren gaitasunak eta mugak ezagutu, arriskatu, kontrolatu... Gela bateko lau hormek sekula irakatsi ezin duten hori erakusten du naturak. Bizipen horiek guztiak modu seguruan eta antolatuan egiteko egokiera berria daukagu Aste Santu honetatik aurrera Nafarroan: Baztan Abentura Park.

Baztan Abentura Park izeneko azpiegitura berri hau Beartzunen dago (Elizondotik 3 kilometrora). Abentura-parkea berria izanagatik ere, esperientzia handiko lantaldea dauka atzean, sustatzaile gisa, kirol-abenturazko ekintzak eta naturarekin lotutako aisialdi eta denbora libreko egitarauak antolatzen 20 urteko esperientzia duen BKZ Nafarroa Abenturak taldea izan baita parkearen diseinatzaile eta bultzatzailea. BKZ-k antolatzen dituen egitarauen artean, naturakintzen eskola-kanpaina edo Aste



Berdea nabarmen daitezke. Kirol-abenturazko ekintzez gain, bi aterpe ere kudeatzen ditu BKZ-k, bata NARBARTEN eta bestea LEGASAN.

Baztango ingurune ederrak kirol-ekintzak egiteko eskaintzen duen abagunea baliatu du BKZ-k Baztan Abentura Park pentsatzeko eta diseinatzeko. Nabarmentzekoa da, gainera, abentura-parke berriak Baztango Udaleko alderdi politikoen nahiz Elizondo eta Beartzungo herritarren babesa izan duela, egitasmo bateratzaile baita, ingurumenarekiko iraunkorra, eta, aldi berean, ingurunekeo garrantzi sozioekonomikoari lagunduko diola ikusten da.

Mexiko, Costa Rica edota Zeelanda Berriko azpiegiturak ezagutu ondoren diseinatu eta egokitu dute Baztango abentura-parke hau. Behin bi faseak gauzatu ondoren eta azpiegitura osoa abian dagoenean, gisa honetako abentura-parke puntakoenetakoa bihurtuko da Baztango munduan, soka-zubiek, penduluek nahiz arroila-jauziek eskaintzen duten altuera, segurtasun eta ikuspegiengatik.

Aste Santu honetan, proiektuaren lehen faseko honako azpiegitura hauek ireki dituzte:

- Ikuspegi zoragarria eskaintzen duten bost soka-zubi tioldar erral-

doi, 300 eta 460 metroko luzera eta 120 metroko altuerakoak. Soka-zubi erraldoi hauek behar bereziak dituzten pertsonentzako egokituta daude.

- Beartzungo erreka gainean, lau soka-zubi txiki (3 urtetik gorako haurrentzat), 40-45-50 eta 65 metroko luzera eta 20 metroko altuera dutenak.

- Arroilako ur-parke naturala: Zankako presan ur-parke natural bat egin dute. Txirristak, 2-4-7 metroko jauziak, 8-10-12-16 metroko rappelak eta txikientzako *via ferrata* bat daude. 200 metroko arroila-jaitiera egiteko aukera dago, jauzi eta txirristekin.

- Ikuspegi zoragarria eskaintzen duen 200 metroko *via ferrata* handia: ekintza horren bidez haitz handi bat igotzeko aukera dute 10 urtetik gorako haurrek: horman jartzen diren grapa eta soken bidez, denbora gutxian lotuta joango da haurra, hala, haren segurtasuna erabat bermatzeko.

- Pendulu txikia: puenting antzeko salto bat da, 30 metroko altuera duena, eta arroilako ur-jauzien aldera egiten da saltoa.

- Ausartenentzat, pendulu handia. 100 metroko altueran kokaturik dagoen plataforma bat da, eta, beraz, jauzi ikusgarri bat egiteko aukera ematen du, 140 metroko hegaldia egitekoa. Gainera, behar bereziak dituzten pertsonen ere pendulu handi horrekin gozatzeko aukera izango dute, behar bereziak dituzten pertsonentzat egokituta baitago.

- Ibilbide panoramikoak: ireki diren bideak erabiliz, Beartzunen barrera ibilbide bat egin daiteke, ikuspegi ikusgarriekin.

Bigarren fasean, 1.300 metroko hiru soka-zubi egiteko asmoa dago, *mega-super* mailakoak, eta, era horretan, sei kilometroko soka-zubien ibilbidea egitea lortuko da. Behin hori eginda, munduko soka-zubien zirkuiturik handienetarikoa bat izango da. Bigarren fase horretan, halaber, begiratoki bat, ibilbide berriak eta uraren ibilbidea egingo dituzte.



Informazio gehiago:

www.navarraaventura.com

bkz@navarraaventura.com

Telefono-zenbakia: 948 592322

Fax-zenbakia: 948 59 21 02

Abentura-parkeak, ekintza horiez guztiez gain, aparkalekua, harreragunea, aldagelak, komunak, askaldegiak, etab. dauzka.

BKZ-k Kattalin aterpetxea eta Bertizeko aterpetxea kudeatzen ditu. Lehena Legasan dago (948 59 23 22 da telefono-zenbakia), lehen mailakoa da eta 46 pertsonentzako lekua dauka (4, 6, 10 eta 12 lagunentzako logelak, bainuarekin). Bertizeko aterpetxea Narbarten dago (948 59 21 16), 86 pertsonarentzako lekua eskaintzen du, eta jangela, taberna eta beste hainbat azpiegitura ditu.





Jakoba ERREKONDO

PAISAJISTA ETA ZERAINGO GARAPEN TEKNIKARIA

Bizitzan izan dudak luxurik handiena hezkuntza izan da. Etxean, sendian, lagunekin, herrian eta, urtea joan eta urtea etorri, eskolan, ikastolan, unibertsitatean..., hainbat ikastetxetan barrena ibilita, hezi, zaildu eta heldu naiz. Irakasleen artean denetik ezagutu dut: lagunik onenari matrailleko latzak ematen zizkietenak, makilarekin jotzen eta erregalizarekin saritzen gintuztenak, hepatitisak jota nengoela ohe ondoraino irakastera etortzen zenean xakean erakutsi zidana, zenbaitetan ikasleak baino jakintza urriagoa zuela onartzen zuena... Sei urtetik hogeira arte ikastetxeetan ibilita, makina bat bizipen ekar ditzaket gaur hona. Pare bat aukeratu dut.

Lehenengo, oroimenetik sekula joango ez zaidana. Haurra nintzen, hamar urte eskasizango nituen. Bitalde erlijiosoren esku zeuden herriko bi ikastetxe nagusiak: neskena bat, mutilena bestea. Geurea, beraien artean elkarri "hermano" esaten zio-

Herri-lana


ten anaidi horietako baten ardurapekoa zen. Guraso-elkarteak gidatuta, ikastetxe erlijiosoetatik abiatuta, ikastetxe misto eta euskaldun bat eraiki nahizen. Erlijioso kristau haiek ikastetxea utzi egin behar izan zuten, eta ez oso gogo onez, itxura batean. Ikastetxean bertan bizi ziren "anaia" haiek. Alde egiterakoan, beren puskak bildu eta atera egin zituzten. Ondoren, ikastetxean ikasten genuen ikasleoi lan bitxi bat agindu ziguten: bigarren solairuan zegoen liburutegiko liburuak hartu eta leihotik ikastetxe-ko jolastokira botatzea. Algara batean ekin genion agindutakoa betetzeari; liburuak bota eta apurtzea, hura bai jolas ederra! Jabetu ginen arte: gure heziketa txikitzen ari ginen, gure etorkizuna zapuzten. Lotsa-lotsa eginda geratu nintzen, eta nola hala, nire galtza motzetako patrikatxoetan bi liburu txiki ezkutatu, eta etxera eraman nituen. Sutarako bidetik libratu nituen. Bi hiztegi txo ziren. Ordurako liburuen garrantziaz jabetua nintzen, aitzak etxean zituen liburu apurrak mundurako bide ederrak ziren... Bada, hurkoa hainbeste maite zuten kristau haiek geuri agindu ziguten astakeria hura egitea. Beraiekin ez bazen, gure etorkizuna geuk suntsitzea. Orduan ikasi nuen: kontuz kristauekin.

Orduan ere dena ez zen txarra, bigarren oroimena ondo bestelakoa da. Ikastetxea herriko plazan zegoen. Jolas-orduan zuzenean kalera atera, eta beste herritarrekin nahasten ginen. Gaur egun, ikastetxe-

ek kartzela itxura dute. Sarez eta txarran-txaz inguratuta daude; nonbait, ez da komeni herrira ateratzea, ezta herria ikastetxera sartzea ere. Garai hartan, adin askotako umeok elkarrekin ikasten genuen, gela berean. Horrek herriaren etorkizunaren egituraketan aparteko garrantzia duela iruditzen zait.

Gaur egun, Zerainen lan egiten dut, herri txiki-txiki batean. Handia da, baina, gauza askotan. Tartean, herriko eskolaren kudeaketan. Eskola txikia da, baina ikastetxe handi askotan baino hobeto hezten dira haurrak. Herriko eraikuntza nagusian dago eskola. Han daude haurtzaindegia, medikuaren kontsulta, kultura-ekintzetarako aretoak, Herri Museoa, etab., eta herriko plaza nagusia dute jolastoki. Honela, haurrek herritarrekin edo museora datozen beste ikasleekin edo turistekin nahasian egiten dute beren bizimodua. Hau da, herriaren bihotzean hezten dira, ez kartzela batean.

Era berean, eskola txikia izanik, 3 eta 9 urte arteko haurrak elkarrekin hezten dira. Horrek berebiziko garrantzia du etorkizunerako. Haurrak bost urte gehiago edo gutxiago dutenekin komunikatzen eta harremanak izaten trebatzen dira. Horrela, transmisio-katea ez da eteten, eta, herriaren etorkizuna lantzeko garaian, denen arteko komunikazioa askoz errazagoa eta eraginkorragoa da. Hezkuntzak herritarrak sortu behar ditu. Herri-lana da hezkuntza. Zeraindarrak eskolan egiten direla diote han.



"Paparra atera dugu Espainiak ez duelako LOMCEren hizkuntzen dekretua ezarriko hemen, Katalunian ez bezala. Hori garaipena! Zer espero genuen? Gure hezkuntza sisteman primeran ikasten da erdara, baina ez euskara. Bestirik nahi dute espainiarrek?"

Jose Mari Pastor

*Euskal Herrian
gure hezkuntza eraiki!*



LOMCEri EZ!

Hainbat hezkuntza eragilek deituta,
NAZIO mailako BATZAR IREKIA.

Non: AGURAINgo kultur etxean

Eguna: Maiatzaren 10ean

Ordua: 9:30ean



hh

XV. HIK HASI Udako Topaketak

Donostia. Uztailak 2, 3 eta 4



Matrikulatzeko azken eguna: maiatzaren 31

Metodo berriak prestakuntzan ♦ Pedagogia Sistemikoa ikasgelan ♦
EUSKARAOLA hizkuntz tailerra ♦ Oinarrizko konpetentziak lantzeko: BLOK ♦
 Kalea esploratu, eraldatu eta ikasi! ♦ **Eskola libre eta demokratikoak** ♦
 Hezkuntzan zailtasunak: hezitzailearen erantzunak ♦ Nerabeak eta
 hezkidetzak ♦ **XXI. mendean eskuz idazten** ♦ Haurrentzako masajea ♦
 Pentsamendu autonomia eta sortzailea ♦ **Nola saihestu gatazkak** ♦
 Emozioak eskolan ♦ **Euskal mitologia eskoletan** ♦ Entrenamendu Mentala ♦
 Bideoa ♦ Dantza eta gorputz hizkuntza ♦ **10 plastika proposamen** ♦ Espresio
 tailerra ♦ **Animaliek lagundutako esku-hartzeak** ♦ **KIROL EGOKITUA** ♦
 Harrerako haurren hezkuntza ♦ "IRRIA" aldizkaria gelan ♦ **Ahotsaren
 erabilera egokia** ♦ Grafodramamusikamotrizitatea ♦ Yoga eta Kontzentrazio
 Teknikak eskolan ♦ **Coaching** ♦ Zeinu hizkuntza ♦ Pikler-Loczy

Informazioa: www.hikhasi.com

943 371 408